**Jesus Mari Lazkano**
Bergarako margolaria ARCOn egon da
KULTURA, 26



**Mondrak eta Aloñak bakarrik irabazi zuten**
2-0 galduta putzuan sartu da berriz Bergara; UDAk galdu egin zuen
KIROLA, 14

**Lorentxo Altube**
Etxaluzeko altxorrak erakutsi dizkigu
KULTURA, 22-23



ASTELEHENEKO
# Goienkaria
ASTELEHENA • 2005eko otsailaren 14a • 1. urtea • 45. zenbakia • 0,90 euro




## 8.100 metro ditu eta paraje ezin ederragoak

**Herrian du abiapuntua Kilometroak 2005eko zirkuituak, Basabeazpi ikastolan, hain zuzen. Handik Urkulurantz abiatzen da bainuetxeko bidegorritik eta urtegiaren inguruan dauden auzo eta paisaia ederretan barrena igaro ondoren, herrira jaitsiko da berriz. Ez du ia aldaparik, paraje ederra da , hainbat aterpe ditu euritik babesteko eta ez dago trafikoarekin interferentziarik.**

**Zirkuitua**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Basabeazpi ikastola | 6 | Arientza-Etxebarri |
| 2 | Copreci | 7 | Mitarte garai |
| 3 | Bainuetxeko bidegorri berria | 8 | Bolinaga auzoa |
| 4 | Urkulu | 9 | Arkarazo auzoa |
| 5 | Arientza auzoa | 10 | Almen ikastola |

# Kilometroak 2005ek badu zirkuitua, Aretxabaletan

*Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan aztertutako bederatzi aukeren artean onetsi dute*

Abenduaren bukaeran onartu zuten, Batzar Nagusian, eta oraintsu eman dute jakitera Kilometroak 2005en zirkuitua. 8.100 metro ditu eta Aretxabaleta inguratzen du, Eskoriatza ere ukitzen duen arren. Parajea ederra da eta ibiltzeko erosoa.

Hurrengo urratsa guneak non kokatu erabakitzea izango da, antolatzaileen esanetan. 2-3

**HERRIA ETA INGURUAK**
**Herritik abiatzen da, Basabeazpi ikastolatik eta inguruko auzoetatik igaro ondoren, herrira jaisten da**

**PARAJE EDERRAK**
**Aukeratutako ibilbideak duen elementu aipagarrienetako bat parajearen edertasuna da**

**ZIRKUITU EROSOA**
**Oso aldapa gutxi dauka, aterpe nahiko, eta trafikoarekin ez du inongo interferentziarik**

**GUNEAK ZEHAZTEKO**
**Lauzpabost gune izango ditu baina oraindik zehazteko dituzte antolatzaileek**

## Urtebete egingo dugu astean

*Asteleheneko Goienkariak 4.511 bazkiderekin beteko du lehen urtea* 8

## Etorkinek kooperatiba dute Bergaran lana eta euren egoera arautzeko 4-5

## Jonathan Perez Espainiarako sailkatuta 20



• Torturari stop eskatu zuten atzo, Oñatin | 8
• Gaur zabalduko dute Arrasaten tranbiaren gaineko erakusketa | 9



**Joxe Aranzabalekin jardun dugu laster, haren minbiziaren gainean aurkeztuko duen liburuaz** | 7





AITOR LIZARRALDE

Ibilbidean barrena paraje ederrak ikusteko aukera izango dute urriaren 2an, Kilometroak 2005 jaira etorriko diren bisitariek. Gipuzkoako Ikastolen Federazioko kideei izugarri gustatu zaie.

**ZIRKUITOA** | 8.100 METRO DITU: HERRI ERDIAN ABIATUKO DA, URKULURA IRITSIKO DA ETA HAN, AUZOETAN BARRENA IBILI ONDOREN HERRIRA JAITSIKO DA

# Kilometroak 2005ek badu zirkuitua: Aretxabaleta inguratuko du

*Bederatzi ibilbideren artean aukeratu dute. Paisaia ederra dauka, guneak kokatzeko leku aproposak, aldapa gutxi, euritik babesteko aterpeak eta norabide bakarra*

Monika Belastegi

Kilometroak 2005ek badu dagoeneko zirkuitua. Hainbat ibilbide aztertzen ibili eta gero abenduaren bukaeran erabaki zuten, Batzar Nagusian, eta astean eman dute jakitera. Hala, urratsez urrats, Arizmendikoen gidaritzapean urriaren 2an ospatuko den jaiaren antolaketa gauzatzen doa: leloa aukeratuta dago, txupinazoa ere egin dute eta baita zirkuitua erabaki ere.

Zirkuituak Aretxabaleta inguratuko du, nahiz eta Eskoriatza ere ukitzen duen, eta 8.100 metroko luzera dauka: herrian du abiapuntua, Basabeazpi ikastolan; handik bainuetxeko bidegorri berria hartu eta Urkuluraino igoko da; han, Areantza, Bolinaga eta Arkarazo auzoak zeharkatuko ditu, eta Almen ikastetxe ondotik pasatu ondoren, Aretxabaleta herrira jaitsiko da, berriz.

**PARAJEAREN EDERTASUNA AZPIMARRATU DUTE**

Alberto Gorroñogoitia Zirkuitua taldeko koordinatzailearen esanetan, erabakia ez da erraza izan; zazpi hilabetez jardun dute lanean ibilbide egokiena erabakitzeko. Ezaugarriei dagokienez, zera azpimarratu du: "Paisaia aldetik ezin hobea da. Gipuzkoako Federazioko ordezkaria txundituta geratu zen gurekin etorri zenean aukeratutako ibilbidea egitera. Gainera zirkuitua eginda dago, nahiz eta zati txiki batzuk konpondu beharra dagoen. Bestalde, trafikoarekin ez dauka inongo interferentziarik, aldaparik apenas duen, eta eguraldi txarra eginez gero aterpe nahikotxo daude euritik babesteko".

Aukeraketa prozesua sakona izan da, iazko ekainean jarri ziren zeregin honetan lau lagun –denborarekin taldea osatzen joan da, hogeitik gora izateraino–. Hiru herrietan, hau da, Aretxabaletan, Arrasaten eta Eskoriatzan aztertu dituzte aukera ezberdinak. Gorroñogoitiaren esanetan, "argi geneukan hasieratik zirkuitua izan behar zuela, ez herri batean zati bat eta beste batean beste zati bat... Horrela, asko konplikatzen eta nahasten dira gauzak, eta gomendatu ere, halaxe gomendatu ziguten Ikastolen Elkartetik". Horrez gain, beste gauza bat ere garbi zuten, alegia, Gipuzkoako Ikastolen Federaziotik emandako irizpideak jarraitu behar zituztela: luzerak zortzi kilometroren bueltan ibili behar zuen, aldapa handirik gabe, herri barruan sar-

**Zazpi hilabetez jardun dute ibilbiderik egokiena antolatzen**

**Ikastolen Federazioak emandako irizpideak jarraitu dituzte**

KILOMETROAK 2005EN ZIRKUITUA

tzeke baina herriak ukituta, paisaia erakargarria izango zuena, guneak kokatzeko bospasei leku izango zituena, aterpeak izango zituena euria eginez gero babesteko, larrialdietarako sarbideak, trafikoan arazorik sortuko ez zuena, aparkalekuak gertu eta norabide batekoa. Hala, irizpideok kontuan hartuta, Aretxabaleta zen aukera gehien ematen zituen herria.

**ERABAKIA DENBORAZ HARTUTA**

Zirkuitua taldeko koordinatzailearen esanetan, denboraz erabaki dute ibilbidea, izan ere, oraindik geratzen dira hainbat lan egiteko, hala nola, guneak finkatzea, seinaleztatzea eta hainbat konponketa egitea ibilbidean. Hori horrela, denboraz iltzea nahiago izan dute. Bestetik, hainbat gauzari arreta berezia jarri beharko diotela gehitu du, bereziki autobus zerbitzuei. Izan ere, zebitzuok ez badira ondo antolatzen "porrota hitza zer den ikasiko dugu" aitortu du Alberto Gorroñogoitiak. Eta gaineratu du: "Autobusena puntu kritikoena izango da. Kontuan eduki behar da Aretxabaletan ez dagoela ia aparkalekurik eta 20.000 auto etorriko direla. Ea ba nola gestionatzen dugun guztia ondo ateratzeko".

**Antolatzaileen esanetan denboraz aukeratu dute zirkuitua**

**Zirkuituaren gainean badira oraindik egin beharrekoak, guneak finkatzea, esaterako**

## • ARETXABALETA INGURATZEN DUTEN AUZOEK ETA PARAJEEK EGITEN DUTE EDER ZIRKUITUA



**URKULU URTEGIA.** Aretxabaleta herritik, bainuetxeko bidegorri berritik gora eginda Urkulura iritsiko da ibilbidea. Han, Urkuluz eta haren inguruaz gozatzeko aukera egongo da.



**ARIENTZA AUZOA.** Urkulun, Arientza auzorantz egingo du ibilbideak. Han, bidean aurrera eginda, hainbat baserriren aurretik igaroko da ibilbidea, tartean Mitarte garai eta Arientza-Etxebarri.



**BOLINAGA AUZOA.** Arientzatik Bolinaga auzora eramango gaitu ibilbideak. Bost baserriko auzunea da; bat hutsik dago eta beste lauretan jendea bizi da. Orain gutxi arte Arientza auzoaren parte zen.



**ARKARAZO AUZOA.** Bolinagatik Arkarazorantz jarraituko du. San Millan eliza eta abadetxeak osatzen duten multzo arkitektoniko ederra ikusteko aukera dago, aurrera egin eta Almenera iritsi aurretik.

## Bederatzi proposamen aztertu ondoren aukeratu dute Aretxabaletakoa

2004 ekainean ekin zioten zirkuitua antolatzeko lanari. Guztira bederatzi proposamen aztertu dituzte, hiru herriak –Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatza– kontuan hartuta. Arrasaten bi proposamen landu dituzte: bata, herri barruan; bestea, 1981ean Kilometroak Arrasaten egin zenekoa. Eskoriatzan ere bizpahiru aztertu dituzte eta gainerakoak Aretxabaletan. Zirkuitua taldeko koordinatzaile Alberto Gorroñogoitiak esan duenez, hartutako erabakia guztiz teknikoa izan da. Gipuzkoako Ikastolen Federazioak ezarritako irizpideen arabera aztertu dituzte aukerok eta egokiena aukeratu dute.

## Zirkuitoa erabaki ostean, guneak ondo finkatzea izango da hurrengo urratsa

Urrats garrantzitsua eman dute Arizmendikoek Kilometroak 05 jaiaren antolakuntza handian: zirkuitua erabakitzea. Hala eta guztiz ere, badira oraindik zirkuituari lotutako hainbat lan egiteko. Lehenengo zeregina guneak finkatzea izango da. Gipuzkoako Ikastolen Federazioak dio lau edo bost gune egon behar direla, eta oraindik ez dituzte guztiak ondo finkatuta. Hori egin ondoren, megafonia, seinaleztatzea, hainbat zatitan babesak eta konponketak egitea... lotu behar dituzte. Bada zereginik oraindik. Hori guztia egiteko, bederatzi hilabete dituzte aurretik Arizmendi ikastolakoek.

## Sagardotegira irteera eta Literatura lehiaketa giroa pizten joateko

Urriaren 2ra bitartean, denetariko ekitaldiak antolatuko dituzte Kilometroak 05en inguruan. Ekitaldiok giroa epeltzen joatea eta dirua batzea dute helburu, besteak beste. Horren harira, Aginaga sagardotegian afaria antolatu dute. Sagardotegira joan nahi duenak, hilaren 18a baino lehen 35 euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxako 002.004269.7 kontuan. Bestalde, literatura lehiaketa antolatu dute. Euskal herriko 14 urtetik gorako edonork har dezake parte. Fernando Morillo idazleak hasi duen nobelari amaiera ematea da oinarria. Nobelaren hasiera eta informazio gehiago *www.kilometroak.com* wegunean daude.

www.memesa.com

SEIN grupo taldea

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

OÑATI
Tel.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE
Tel.: 943 71 24 24
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 20 04

ETORKINEN EZOHIKO ERREGULAZIO PROZESUA

**BI AURPEGIKO PROZESUA** | HASI DA ATZERA KONTUA

# Hiru hilabete dituzte etorkinek euren lan egoera legeztatzeko

*Etorkinek itxaropenez hartu dute erregulartasun prozesua baina epe motzegiak direla salatu dute*

*Bergarako Artzipestaldeko Caritasek sortutako kooperatiba esperientzia aitzindaritzat jotzen dute askok*



Bergarako langile etorkinak joan den astean egindako informazio hitzaldian. Aurrerantzean, ostegunero hiru pertsona arituko d

Larraitz Zeberio

Debagoieneko udal erroldetan 1.800 etorkin baino gehiago dago izena emanda. Arrasaten 800dik gora daude eta Bergaran, berriz, 517. Eskoriatzan 71 daude, erroldatutako erdia baino gehiago portugaldarrak. Aretxabaletan, Antzuolan eta Elgetan pakistandarrak eta marokoarrak dira nagusi, nahiz eta Hego Amerikatik datozenak gero eta gehiago izan. Herri hauetan 40-50 etorkin inguru dago erroldatuta. Gatzagaren kasuan, etorkin bakarra dago erroldatuta, Ekuadorrekoa bera.

Etorkin hauek guztiek hiru hilabeteko epea dute euren egoera erregularizatzeko. Enplegu-emaileek tramitatu behar dute euren langileen erregulazio prozesua, eta etorkinek ezinbestez bete beharreko baldintzen artean, otsailaren 7a baino lehen gutxienez sei hilabetez Espainiako Estatuan erroldatuta egotea eta urtebetean sei hilabeteko lan kontratua izatea dira aipagarrienak.

**BI AURPEGIKO PROZESUA**

Etorkinek itxaropenez hartu dute erregulartasun prozesua, baina eskatzen dizkieten agiriak lortzeko oso epe laburra eman dietela salatu dute. Beldur dira euren herrialdeetatik bidali behar dizkieten paperak garaiz iritsiko ez ote diren. Bestalde, ez dute denek euren egoera erregularizatzeko aukera izango, bete beharreko baldintza guztiak betetzen ez dituztelako. Bergarako Artzipestaldeko Caritasek sortutako kooperatiba elkartean, esaterako, 250 etorkin inguruk dihardute lanean eta erdiak besterik ez du paperak egiteko aukera izango.

**EKIMEN AITZINDARIA**

Kooperatiba honen egitura duela hiru urte hasi zen gauzatzen. "Herrian errealitate bat sumatzen hasi ginen", azaltzen du Xabier Azkoitia Bergarako Santa Marina elizako parrokoak. "Alde batetik, gurasoei zaintza egokia eman nahi zieten familiak genituen eta bestetik, lana egiteko prest zeuden etorkinak. Kooperatzera behartuta geunden".

Xabier Azkoitia parrokoaren esanetan kooperatu hitzaren inguruan agertzen diren baloreak bereziki lagungarriak gertatzen dira horrelako egoerak konpontze aldera. Enpresa pribatu bat eratzea guztiz baztertuta zegoen.

Kooperatibaren filosofia, beraz, argia zen. "Familiak ez dira bezeroak, konpondu beharreko arazo larri bat dutelako. Etorkinak, berriz, ez dira eskaleak langileak baizik".

Egun, 250 emakumek dihardute lanean kooperatiba honetan. "Langile bat etortzen denean argi azaltzen diogu kooperatibako kide izateak konpromiso batzuk hartzea suposatzen duela. Hau sare handi bat da. Edozein lanen berri jasotzen badugu ekarri egin behar dugu. Lanak ez dira norberarenak, baizik eta kooperatibarenak, eta kooperatibak negoziatzen ditu denentzako berdinak diren lan baldintzak".

Kooperatibak familiak eta langileak ebaluatzen ditu eta lan konkretu hori egiteko langile egokiena izendatzen denean hiru aldeak biltzen dira. Orain arte ahozko hitzarmenak lotzen ziren. Laster, ordea, kontratuak sinatzen hasiko dira euren egoera erregularizatzea lortuko duten langileak.

Langileen lan baldintzak, ordea, orain artekoak izango dira, hasieratik ezarri zuten eta kooperatiba honetan etxe-langileen hitzarmen kolektiboa betetzearen kondizioa. Enplegu-emaileek, bestalde, hasieratik ordaintzen dute gizarte segurantzaren baliokidea, eta langilearen konpromisoa aseguru bat kontratatzea zen. Orain, egoeraren erregularizazioa dator.

## Kooperatibaz gain etorkinek bestelako zerbitzuak dituzte

**HARRERA** |
**• Lehen kontaktua**
Pertsona berri bat Bergarako Siervetara iristen denean hainbat zerbitzu aurkitzen ditu eskuragarri. Lehen momentu batean Xabier Azkoitia, Jasone Albisua eta Ainhoa Basaurik artatzen dituzte. "Azkenaldian Hego Amerikatik dator jendea eta ez dute arropa egokirik ekartzen", adierazten du Xabier parrokoak. "Arropategi zerbitzua dute orduan eskuragarri eta Pauli Murorengana bidaltzen ditugu".

**MEDIKUA ETA FINANTZIAZIOA** |
**• Zorrak kitatzeko helburua**
Euren herrialdea utzi eta gurera lanera datozen etorkinek, gehienetan, kitatu beharreko zorra dakarte. "Akordioak ditugu zenbait banketxe eta aseguru enpresekin zor horien finantziazioa egiteko. Ivan Iturricastillo aritzen da zeregin hauetan", dio parrokoak. "Aldi berean, mediku-azterketa egiten die Garbiñe Garmendiak, osasun arazorik izanez gero sendatzeko".

**ETXEBIZITZA ETA ANIMAZIOA** |
**• Tailerrak zapaturo**
Caritasek zortzi etxebizitza lortu ditu Debagoienean etorri berriei ostatu emateko. Alokairua ordaintzen dute eta lagundu egiten diote elkarri. Beste alde batetik, duela hilabete aisialdi tailerra jarri zuten martxan. "Beraiengandik irtendako ideia da tailerra", azaltzen du Jasone Albisua koordinatzaileak. "Lagun artean elkartu eta tailer desberdinak egin nahi dituzte. Hori guztia gorpuzten saiatuko gara aurrerantzean".

**CONSELLING ZERBITZUA** |
**• Jarraipen etikoa**
"Pertsona hauek, normalean, oso bakarrik sentitzen dira eta oso erabaki gogorrak hartu behar izaten dituzte gainera", adierazten du Xabierrek. "Izugarri sufritzen dute. Berba egiteko pertsona bat behar izaten dute, eta orain eratzen ari den zerbitzu berri honetan laguntza hori eskaini nahi dugu. Teknika konkretu bat da zerbitzuan landuko duguna".

**ETORKINEN EZOHIKO ERREGULAZIO PROZESUA**



MONIKA BELASTEGI

ira Bergarako Siervetan kontsultak artatzen 15:00etatik 17:00etara.

## • HORRELA BIZI DUTE EUREN ESPERIENTZIA



**MIRIAM** | BOLIVIA

**"Hiru hilabete oso denbora gutxi da eskatzen dituzten agiri guztiak eskatu, jaso eta behar diren moduan aurkezteko"**

Miriamek bi urte daramatza hemen. Kooperatibako langilea da eta, orain, bere egoera erregularizatzeko aukera izango du. Kezkatuta dago, ordea, Espainiako gobernuak oso epe motza eman du eta agiri guztiak aurkezteko.

"Boliviatik ekarri behar ditut paperak eta ez da batere erraza. Hamar egun behar ditut nire eskaera orriak Boliviara iristarazteko. Beste hamar egun agiriak jasotzeko, eta hori dokumentazioa tramitatzeko behar den denbora kontuan hartu gabe. Ez dakit nire paperak garaiz iritsiko diren". Aurrekari penalen agiria ere behar du. Ba omen dauka baina balioa galduta. "Ez banaiz Bolivian egon azken bi urteotan zein aurrekari izango dut ba!"

Kooperatibarekin oso pozik dago, aurrerapauso nabarmenak ikusi dituelako proiektuan.



**SELVIRA** | BOLIVIA

**"Orduz ordu egiten dut lan eta nire egoera berean etorkin asko ei dago. Abokatuak dio, agian, arazoak izango ditudala"**

Selvirak urtebete pasatxo darama gure artean eta bere egoera erregularizatzeko aukera izango duela uste du.

"Zorionez ez zait sekula lana faltatu. Hilabete bakarra egin dut langabezian etorri naizenez geroztik. Kontua da orduz orduko lana egiten dudala eta nire kasua autonomo baten kasua dela. Abokatuak esan didanez ni bezalako kasu asko daude tramitatzeko eta agian horrek kalte egingo dit. Besteek baino aukera gutxiago ditut".

Puntua egiten aurkitu dugu Selvira Caritasen Bergarako egoitzan. Zapatuetan hurbiltzen da bertara bere egoera berean dauden lagunekin arratsalde pasa egitera. "Gure egoera erregularizatzeko eskatzen dizkiguten agiriak ez dira lortzeko zailak, baina denbora gutxi dugu eta gure herrialdeetan lanez gainezka daude".



**JASONE ALBISUA** | ANIMAZIO ARDURADUNA

**"Iritsi berriak direnean etorkinen lehentasuna lana eta etxebizitza lortzea da. Gero, aisia betetzen saiatzen gara"**

Jasonek bederatzi urte daramatza Bergarako Caritasekin lanean. Haurrekin, etxerik gabeko jendearekin eta etorkinekin aritu da. Hasiera batean, etorkinek lana eta etxebizitza lortzea ei dute helburu.

"Iritsi berriak direnean etorkinek lana eta etxebizitza lortu nahi dituzte. Hasieran gogorra egin zitzaidan lan hau, ez nekielako beraiengana nola hurbildu. Baztertuko nindutenaren beldur nintzen. Orain, ordea, denboraren poderioz elkar ezagutu dugu eta aisia antolatzen laguntzen diet".

Saskibaloian jokatzera elkartzen da Bergaran zapaturo emakume talde bat eta euren ekimenez laster abiaraziko dituzte eskulan tailerrak. Abuztuan, bestalde, Boliviaren eguna antolatuko dute. "Eurek proposatu dute eta saiatuko gara forma ematen".

**ABDOULLAYE GUEYE** | ABOKATUA

# "Erregularizazio prozesuak oztopo handiak jartzen ditu"

Larraitz Zeberio

**Erregularizazio prozesu honetan enplegu-emaileek bideratu behar dituzte etorkinen tramitazioak. Informazio egokia eskaintzea da abokatuen nahia.**

**Bergarako Caritasen kooperatibak zein berezitasun ditu?**

Berritzailea da etorkinak profesionalki zein legalki antolatuko dituen proiektua delako. Karitatearen eredua gainditu egiten du.

**Etorkin hauen egoera berezia da erregularizazio prozesu honetan?**

Kooperatibaren proiektua oso une egokian dator, bertan lanean diharduten etorkin gehienek legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituztelako. Euren egoera legeztatu ondoren askatasunez erabakiko dute kooperatiban jarraitu ala ez. Askatasun hori ematea oso garrantzitsua da.

**Zein da zure iritzia erregularizazio prozesu honi buruz?**

Etorkin batzuek euren egoera erregularizatzeko aukera izango dute eta hori oso ondo dago. Prozesuak, ordea, traba asko jartzen ditu. Erroldatze-agiria eskatzea zentzuzkoa da, baina bada erroldarik gabeko etorkin asko, ospitaleko agiriekin esaterako, azken bost urteotan hemen bizi izan dela egiaztatu dezakeena.

Bestalde, enplegu-emaileari jartzen zaizkion oztopoak gehiegizkoak dira. Honek inkisizioa dirudi. Zergatik aurkeztu behar dute errenta aitorpena? Askok atzera egiten dute arazorik nahi ez dutelako.

Azkenik, prozesu honek lana egiten duen etorkina besterik ez du kontuan hartzen. Zer gertatzen da seme-alabekin? Gobernuak ez du etorkina pertsona moduan hartzen. Helburua, Gizarte Segurantzan kotizatzeko pertsona gehiago lortzea da.

**"Karitatearen eredua gainditu egiten du kooperatibak"**

**Aste bete joan da erregularizazio prozesua zabaldu denez geroztik. Nola joan dira gauzak?**

Denetarik ikusi dugu. Eguenean izan genuen bilera lurraldeordezkaritzarekin azken arazoak konpontzeko. Astelehenean, ordea, gauzak beste modu batera antolatuak aurkitu genituen. Zirkularrak iristen dira Madriletik eta goiz osoa beren txandaren zain egin zuten enplegu-emaileei bizpahiru dokumentu falta zitzaizkien. Bat-batean, gizarte-segurantzan kotizazio kontua ezinbestekoa zen. Erraz bideratzeko kontua da baina beste egun bat suposatzen du.



MONIKA BELASTEGI

**Egia al da etorkinek euren jatorrizko herrialdearen arabera aukera gehiago edo gutxiago dituztela egoera erregularizatzeko?**

Hiru hilabete oso epe motza da. Etorkin baten herrialdeak hemen kontsuletxerik ez badauka jai dauka aurrekari penalen agiria lortzeko. Azerbaijango kontsuletxerik hurbilena esaterako Turkian dago, Ankaran.

Inork ez ditu kasu hauek aurrez ikusi. Zenbait etorkin desberdintasun egoeran daude.




AITOR LIZARRALDE

Ezezkoaren aldeko plataformako kidak egubakoitz arratsaldean egindako prentsa aurrekoan.

# Bederatzi arrazoi ditu Ekimenak ezetz esateko

*Europako Konstituzioaren inguruko hitzaldiak, mahai-inguruak eta bestelako mobilizazioak egingo dira asteon*

Marijo Deogracias

"Eskualde honetan ezetz esango diogu Europako konstituzioari, lehen Espainiakoari eta NATOri esan zitzaion moduan", adierazi zuen Xabier Arregi Ezezkoaren Aldeko Ekimeneko kideak. Taldeko hainbat lagunekin batera prentsaurrekoa egin zuten joan zen egubakoitzean Bergaran Ekimenekoek, ezezkoa azaltzeko bederatzi arrazoi emanez: "Europar konstituzioari ezetz diogu, estaturik gabeko nazioak ez dituelako aintzat hartzen eta autodeterminazio eskubidea ukatzen duelako; hizkuntza gutxituak baztertzen dituelako; gizarte eskubide nagusien aipamenik egiten ez duelako; herritarren parte hartzea aurreikusten ez duelako; genero parekidetasunik praktikatzeko modurik jartzen ez duelako; ingurumenaren kalterako hazkunde ekonomikoaren alde egiten duelako; eta AEBk praktikatzen duen interbentzionismoa defendatzen duelako. Arrazoi horiek ditugu Europako konstituzioari ezetz esateko eta Debagoienak ezetz esan diezaiola nahi dugu".

Horretarako ibarreko hainbat eragileren atxikimendua jasotzen ari direla ere azaldu zuten.

**HAINBAT EKIMEN ASTEON**

Martitzenean Eskoriatzako HUHEZIn Europaren gainean eztabaida egongo da, 18:30ean eta Ezekoaren Aldeko Ekimenak hitzaldia emango du Arrasateko kultura etxean, 19:30ean. ELAk eguaztenean azalduko du bere iritzia Arrasaten, 18:30ean. Eguenean, berriz, ikasleek deitutako mobilizazio eguna izango da.

• EKINTZA SOLIDARIOETAN TREBATZEKO IKASTAROA



AITOR LIZARRALDE

## KULTURARTEKOTASUNA LANDU ZUTEN ZAPATUAN

Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Arrasateko GKEk antolatutako ikastaroa da eta parte hartzaileak gizarte gaietan eta ekintza solidarioetan trebatzea du helburu. Urrian hasi zen eta hilean behin egiten dituzte saioak. 30 lagun inguruk dihardute eta otsaileko saioa zapatuan egin zuten, kulturartekotasunaren gainean. Martxoaren 12an egingo duten azkeneko saiorako izena eman daiteke.

• SANTA ESKOLASTIKA EGUNA, OÑATIN



AITOR LIZARRALDE

## ZAINDARIAREN EGUNA OSPATU ZUTEN ELKAR HEZIN

Meza eta haur jolasak egin zituzten goizean eta arratsaldez urteroko jendaurreko ekitaldia egin zuten ikastetxeko areto nagusian. 400 ume igo ziren eszenatokira jendez gainezka zegoen areto nagusian. Han, prestatutako antzerkia eta dantza saioak egin zituzten guraso eta senideen gozamenerako.

• ANTZUOLAKO HAURTZAINDEGIA

## EGUBAKOITZEAN INAUGURATU ZUTEN ETA BOST UME DITU

Egubakoitzean inauguratu zuten Antzuolan haurtzaindegia. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuorde Abel Ariznabarreta, Antzuolako alkate Jose Angel Zabalo eta Goizper kooperatibako ordezkariak (30.000 euroko laguntza eman du haurtzaindegiarendako).

Inaugurazio ofiziala egubakoitzean egin zuten arren, urtarrilaren 31tik zabalik dago eta oraingoz, bost ume daude. 0 eta 2 urte bitarteko umeendako zerbitzua eskaintzen du eta espazio banaketa, ekipamendua eta hezkuntza proiektua oso modu berezian zaindu dituzte.



JULEN IRIONDO

• HERRI TXIROTUEKIKO JUSTIZIA ETA SOLIDARITATEA



AITOR LIZARRALDE

## SINADURAK BATU DITUZTE ASTEBURUAN

Herri txirotuekiko justizia eta elkartasunerako legegintzako herri ekimenak –hainbat talde, gizarte eragile eta banakok osatzen dute– sinadurak batu ditu asteburuan ibarreko hainbat herritan. 30.000 batzea dute helburu, Eusko Legebiltzarrak herri txiroak kontuan hartzen dituen legea onar dezan.

Eskoriatzako HUHEZI unibertsitatean hartu dugu hitzordua Joxe Aranzabalekin. Irailaz geroztik lanean da, baina jakin badaki, bere borroka gogorra ez dela oraindik amaitu. 2002ko irailean minbizia diagnostikatu ziotenetik bere esperientzia internet bidez ezagutzera ematea erabaki zuen. Sustatun eta Faroa weblogean idatzi ditu bere burutazio eta kezkak. Orain, liburua argitaratu du Elkar argitaletxearekin. Otsailaren 22an egingo da aurkezpen ekitaldia Arrasateko Monterron Jauregian.

**JOXE ARANZABAL** | 'MEDIKUAK ESAN DIT MINBIZIA DUDALA' LIBURUAREN EGILEA

# "Liburua sinfonia bat da, ahots askok hartzen dute parte bertan"



LARRAITZ ZEBERIO

Joxe Aranzabal irailean itzuli zen lanera. Irakaslea da Eskoriatzako unibertsitatean.

Larraitz Zeberio

**Zer moduz zaude, Joxe?**

Ondo. Oraindik gauzak hartzen, kortikoideekin errefusatze arazoak agertzen zaizkidalako ahoan. Hori oraindik ez da konpondu eta hor gabiltza. Behar bada luze joko du, ez dakigu. Baina bestela ondo. Irailaz geroztik lanean eta animoz ondo.

***Sustatu.com* atarian, Faroa weblogean... asko idatzi duzu. Idaztea terapeutikoa izan da zuretzat?**

Bai. Hasieran sortu zitzaizkidan mamuak uxatzen lagundu zidan. Oso zorabiagarria izan zen. Idazteak hori beste plano batera pasatzen eta antolatzen lagundu dit. Lasaitzen ere bai.

**Noiz otu zitzaizun zure bizipenak liburu batean jasotzea?**

Nire erabakia izan zen nire esperientzia Interneten konpartitzea. Geroago, ikusita zein erantzun izan duen, pare bat eskaintza iritsi zaizkit liburu bat argitaratzeko.

**Beste aukera bat ikusi duzu zure esperientzia jende gehiagorekin konpartitzeko?**

Internetek bat-batekotasuna eskaintzen du. Alde horretatik liburua baino bizkorragoa da. Bizipenak freskoago jasotzen ditu eta balio handia dauka. Aldiz, jende gutxiagorengana iristen da. Liburuak irakurketa lasaiagoa egiteko aukera emango du. Bi formatu desberdin dira. Batak bete du bere papera. Orain, beste formatuaren txanda da.

**Zer aurkituko dugu *Medikuak esan dit minbizia dudala* liburuan?**

Nire bizipenak. Ez naiz irakaspenik egiten ahalegindu. Badakit kasu bakoitza desberdina dela. Askotan gertatzen da, ordea, beste baten bizipenak irakurtzerakoan, eta zuk antzeko kasua daukazunean, aurkitu ditzakezula elementu lagungarriak. Nik ere asko irakurri nuen gaixotu nintzenean. Rojas Marcos psikiatraren lana esaterako. New Yorken zegoen irailaren 11n eta txiripaz salbatu zen. Kontatzen zuen nola gainditu horrelako trauma gogor bat. Gero, Armstrong txirrindulariaren liburua ere irakurri nuen eta Adolfo Suarezen alabak idatzitako beste bat. Liburu oso desberdinak ziren baina ondo etorri zitzaizkidan, nik momentu hartan behar nuen informazioa lortu nuelako.

**Nola egituratu duzu zure liburua?**

Nire testu guztiak daude liburuan. Kasu batzuetan moldaketa txiki batzuk eginda, baina Interneten estiloa liburura egokitzeko gehien bat. Gero, atal bakoitzaren bukaeran hiru bat erantzun aukeratu ditugu. Zentzu horretan liburua sinfonia bat da. Ahots askok hartzen dute parte, ez da soilik nirea.

**Eta nori zuzendutako liburua da?**

Pentsatzen dut, batez ere, gaixorik dagoen jendeak irakurriko duela edo inguruan pertsona bat minbiziak jota daukanak.

**Laster, Faroa webloga *Goiena.net* atarian ere aurkituko dugu, ezta?**

Faroa dohaneko blog plataforma batean sortu nuen. Orain, *goiena.net*-ek aterako duen blogak sortzeko eskaintza berrian parte hartzeko gonbita jaso dut. Goienarekin oso harreman ona daukat betidanik, nire bigarren etxea da eta hor dagoen jendea oso laguna dut.

> "Nire testu guztiak daude liburuan, eta atal bakoitzaren amaieran jasotako bizpahiru erantzun"

> "Ez naiz irakaspenik egiten saiatu, nire bizipen pertsonalak jaso ditut liburuan"

**Idazten jarraitzeko asmoa duzu, beraz?**

Eguneroko zurrunbilora itzuli naiz, baina egunero momentutxo bat eduki nahi dut pentsatzeko eta idazteko. Uste dut horrek lagunduko didala eguneroko gurpil zoro horretatik pixka bat irteten. Norbaitek uste badu hori interesgarria dela klik egingo du eta bestela ez.

> "Internetek bat-batekotasuna eskaintzen du, liburuak irakurketa lasaiagoa"

> "Eguneroko zurrunbilora itzuli naiz, baina egunero tartetxo bat gorde nahi dut idazteko"

**Nola deskribatuko zenituzke azken hiru urte hauek?**

Inoiz bizigabeko esperientzia izan da. Gaixotasun gogor batean murgilduta. Nik uste dut eskola bat ere izan dela behartu nauelako gaixotasunarekin bizitzen ikastera. Ez dakizu aurrera egingo duzun edo ez, zulora joango zaren... ez dakizu ezer eta dena da posible, gainera. Nola edo ala prestatu egiten zara zalantza horrekin bizitzeko, eta nik uste dut moldatu naizela. Badakit, medikuek esanda, nire gaixotasuna ez dela sendatu, baina badakit molestiekin eta arazoekin bada ere, nahiko bizi-kalitate onarekin bizi naitekeela.Hori horrela betetzen den bitartean, aurrera.

**Inoiz damutu zara zure egoera publiko egin izanarekin?**

Ez. Hasieran zalantza batzuk izan nituen, baina konturatu naiz jendeak ulertu egin duela nire hitzak zintzo esandako hitzak direla. Beharbada, azalean utzi dut nire pribatutasuna, baina ordainetan sekulako animo zaparrada, elkartasuna eta maitasuna jaso ditut. Eman dudana baino askoz ere gehiago jaso dut.

**Zer esango zenioke minbizia diagnostikatu berri dioten pertsona bati?**

Lasai hartzeko eta hitz egiteko. Ez ezkutatzeko ezer bere barruan, eta gaur egun kasu gehienak osatu egiten garela. Batzuk erabat, beste batzuk ez guztiz, baina urteak eta urteak bizi gaitezkeela.

Osasuntsu daudenek ere ez dakite noiz arte biziko diren. Itxaropena badagoela esango nioke eta itxaropen horren zati handi bat bere esku dagoela, gainera. Denok daukagula indar handi bat hor barruan aurrera egiteko eta bila dezala bere barruan.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Irudiko hiru azalek saria jaso zuten European Newspaper Award sariketan.

# Etzi urtebete egingo dugu, 4.511 harpide lagun ditugula

*Harpideez gain, astero ehun ale inguru saltzen dira kioskoetan*

A.G.

Urtebete pasa da ASTELEHENEKO GOIENKARIAren lehenengo alea argitaratu genuenetik. 2004ko otsailaren 16an izan zen, astean, beraz, bigarrenean sartuko gara, lau urte dituen *Goienkaria* anaiaren bide lagun.

Lana ez da erraza izan baina hilabeteak aurrera egin ahala aldizkaria egonkortzen joan da. Horren isla da, hilabeteekin batera harpide kopuruaren igoera: 4.511 ditugu. Horrez gain, astero ehun bat ale saltzen dira kioskoetan.

Badago oraindik zer hobetu, bai aldizkarian, baita banaketa arloan ere, eta horretan gabiltza. Eskerrik asko gure lanean konfiantza jarri duzuenoi.

### Harpidedunen bilakaera




### Harpidedunak herrika

| Herria | Kopurua | Herria | Kopurua |
|---|---|---|---|
| Bergara | 1.316 | Antzuola | 191 |
| Arrasate | 1.312 | Aramaio | 35 |
| Oñati | 803 | Elgeta | 77 |
| Aretxabaleta | 497 | Gatzaga | 6 |
| Eskoriatza | 212 | Korreoz bidalitakoak | 62 |

# Hiltegiari eusteko bideragarritasun plana aurkeztuko dute

*Alderdi guztietako zinegotziek hiltegiaren alde egin dute Eskoriatzako jardunaldietan*

A.G.

Zubillagako hiltegiari eustearen aldeko Plataforma gustura agertu da Mankomunitateko hiltegiaren gainean egin berri dituen jardunaldiek izandako harrerarekin. Berrehun lagunek baino gehiagok parte hartu dute eta "hiltegia ixtearen alde dauden erakundeetako ordezkariak ez egotea" salatu duten arren, han izan ziren alderdi guztietako zinegotziak "hiltegiari eustearen alde agertu ziren eta bat etorri ziren zerbitzuaren finantziazioan beste administrazioek kolaboratu behar dutela esaten. Jaurlaritzak, Diputazioak eta hiltegia erabiltzen duten inguruko eskualdeetako Udalek parte hartu beharko lukete", azaldu dute Plataformakoek.

**PROPOSAMENA LASTER**

Hiltegiaren bideragarritasunari buruzko ikerketa argiratatuko du Plataformak laster eta horrekin hiltegia ez ixteko proposamen zehatza egingo dio Mankomunitateari.

● INDAR OKUPATZAILE-TORTURATZAILEEN KONTRA



AITOR LIZARRALDE

**KONTZENTRAZIOA EGIN ZUTEN OÑATIN**

Askatasunak deituta, hainbat lagunek elkarretaratzea egin zuten Oñatin atzo, "Indar okupatzaile-torturatzaileak alde hemendik" eskatzeko. Torturaren aurkako eguna izan zen atzo eta horren harira, Torturari Stop! eskatzeko egin zuten elkarretaratzea, Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean. Deitzaileek gogoratu zuten, aurten dagoeneko 57 euskal herritarrek salatu dutela poliziaren eskutik torturak jasan izana.

LASAGABASTER

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## Albiste izango da

**ARRASATE** | MONTERRONEN EGONGO DA IKUSGAI

### Ibarreko tranbiaren erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena

Alvaro Amann Garraio eta Herrilan sailburuak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Diputatu Nagusiak ibarreko tranbiaren gaineko erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena, Arrasateko Monterron jauregian. Tranbiaren lehen tartea Bergara-Arrasate-Aretxabaleta bitartean joango da. Hori horrela, erakusketaren inaugurazio ekitaldian hiru herriotako alkateak ere izango dira: Victoriano Gallastegi, Ignazio Lakuntza eta Arritxu Oliden, hurrenez hurren. Tranbiaren ibilbidea zehaztasun osoz ikusteko aukera egongo da erakusketan.

**BERGARA** | OTSAILAREN 21A DA MUGAEGUNA

### Zabalik 14 urtetik gorakoendako tenis txapelketako izenematea

Zabaldu dute epea 14 urtetik gorakoendako tenis txapelketan izena emateko. Bergaran jokatuko da txapelketa otsailaren 26tik aurrera, Labegaraietako kiroldegian. Izenematea 12 euro da Debagoiena Kirol Zerbitzuetako bazkideendako; gainerakoek, 15 euro ordaindu beharko dute. Izenemate epea, berriz, otsailaren 21ean bukatuko da, eta horretarako Bergarako Kirol Zerbitzura jo behar da edo 943 77 91 67 telefono zenbakira deitu.

Txapelketa sistemari dagokionez, bi fase ditu: lehenengoa, liga erara jokatuko da eta partehartzaileen arabera bi edo hiru talde egingo dituzte; bigarrenean, kanporaketak jokatuko dira. Txapelketa puntuagarria da Debagoieneko txapelketa zirkuiturako.

**ARRASATE** | ZAPATURA BITARTEAN

### Euskalduntzearen gaineko erakusketa zabalduko dute gaur, Harresi aretoan

Euskal Herrian eskolak euskalduntzen ez dituen milaka ume daudela ezagutzera emateko erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena, Harresi aretoan. Panel informatiboen bidez emango dute horren berri erakusketan.

Gaurtik datorren zapatura bitartean egongo da zabalik erakusketa, 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Antolatzaileak hauek dira: Euskal Herriak Bere Eskola, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Ikasle Abertzaleak, Sortzen Ikasbatuaz, LAB sindikatua, Ikastolen Konfederazioa, Kontseilua, Oinarriak eta Euskal Herriko Gurasoen Elkartea.

Eguaztenean, Harresi aretoan egongo dira antolatzaileak erakusketaren gaineko azalpenak emateko.

**ARETXABALETA** | GOMA-APAR IKASTAROA ERE BADA

### Pello Zabalak eta Andoni Aizpuruk tenporak berba gai, eguaztenean

Loramendi Euskara elkarteak antolatuta, Pello Zabala eta Andoni Aizpuru izango dira eguaztenean, hilaren 16an, tenporen gaineko hitzaldia ematen. Udaletxe zaharrean izango da, 19:00etan.

Bestetik, goma-apar ikastaroa ere antolatu dute. Danel Goikolea arrasatearrak emango ditu eskolak eta ikastaroa hiru ordukoa izango da, otsailaren 19an, zapatua. Batik bat, ikastaro praktikoa izango da. Izena emateko, Loramendi elkartetik pasa daiteke edo 943 77 09 70 telefono zenbakira deitu. *loramendi@topagunea.com* helbidean ere eman daiteke izena.

**OÑATI** | 20:00AK ARTE EGONGO DA ZABALIK

### Gaurtik aurrera hiru orduz luzatuko du zerbitzua osasun zentroak

Anbulatorioak harrera ordutegia zabaldu egingo du gaurtik aurrera. Hiru orduz zabalduko du; beraz, aurrerantzean, 20:00ak arte egongo da zabalik, astelehenetik egubakoitzera bitartean. Horretarako errefortzu taldea jarriko dute: mediku bat, erizaina eta administraria, eta 13:00etatik 20:00etara arteko lan jarduna izango dute.

Horrekin guztiarekin, anbulatoriotik jakitera eman dutenez, lan ordutegiagatik edo beste edozein arrazoirengatik, familiako mediku zerbitzua arratsaldean nahiago duten pertsonek anbulatorioan egin beharko dute eskaera.

## Hitzorduak




**KORRIKARI BEGIRA** | **Kilometroak eta laguntzaile txartelen salmenta eta erakusketa bat**

Korrika 13 iristen denerako prestatzen dabil Debagoiena. Kilometroak salgai daude Arrasateko AEKn (943 77 03 69 da telefonoa). 320 euro balio ditu eta norberak zein elkarte, ikastetxe edo lantegiek eros ditzakete. Korrikako laguntzaile txartela ere salgai dago AEKn, euskara elkarteetan eta zenbait tabernatan, 12 eurotan.

Horrez gain, Korrikaren inguruko erakusketa antolatu gura du Elgetako batzordeak. Elgetatik Korrika pasatu deneko argazkiak dituztenei liburutegira eramatea eskatzen diete.

Azkenik, Aretxabaletako batzordeak batzarra egingo du eguenean udaletxe zaharrean.

**ARETXABALETA** |

**• Odol-ateratzeak egingo dituzte gaur, astelehena**
Osasun zentroan dago odola emateko aukera, 16:00-20:00.

**• Gomaespuma ikastarorako izenematea zabalik dago**
Gomaespuma ikastaroa emango du Danel Goikoleak zapatuan, hilak 19, udaletxe zaharrean. Loramendi elkarteak antolatzen du. Izena emateko, deitu 943 77 09 70 telefonora.

**• Informazio batzarrak Kurtzebarri eskolan**
Kurtzebarri eskolak informazio batzarrak deitu ditu, matrikulazio epea dela eta: Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, gaur, astelehena, 18:00etan (euskaraz) eta 19:00etan (gaztelaniaz); Bigarren Hezkuntzakoa, etzi, eguaztena, 18:00etan.

**• Tsunamiak kaltetutakoei laguntzeko dirua batuko dute**
Asiako hego-ekialdean izan zen tsunamiak kaltetutakoei laguntzeko dirua batuko du Udalak. Herritarrek dirua eman dezaten kutxa bat jarri dute udaletxeko harreran.

**• Basotxoko Aingeru Guarda eguna eta bidaia bat**
Basotxo erretiratuen egoitzako zaindariaren eguna ospatuko dute martxoaren 1ean. Taberna Berrin bazkalduko dute. Izenematea zabalik dago egoitzan bertan. Bestalde, Benidormera bidaia egingo dute apirilaren 23tik maiatzaren 7ra bitartean.

**BERGARA** |

**• Konstituzioaren gaineko mahai ingurua Txapa irratian**
Eguaztenean izango da, 19:30ean. EAJ, Hz, Aralar eta Ezker batuko ordezkari bana egongo dira.

**ARRASATE** |

**• 58koen kinto batzarrerako izenematea zabalik dago**
58ko kintoek meza eta bazkaria egingo dituzte martxoaren 12an. Izenematea martxoaren 6a baino lehen egin behar da, Jose Riviere edo Pedro Fernandezengana joaz.

**• Hastapen mailako joskintza ikastaroa antolatu dute**
Ekin Emakumeak elkarteak antolatu du otsailaren 21etik 24ra bitartean. Izenematea zabalik dago hilaren 17ra, eguenera, bitartean.

**• 40an jaiotako emakumeen batzarrerako izenematea**
Ospakizuna izango dute 26an. Meza entzun eta batera bazkalduko dute Hostalean. Izena emateko, jo Hire liburu-dendara hilaren 19a baino lehen. 20 euro aurreratu behar da.

**DEBAGOIENA** |

**• Ikastolen Elkarteak udarako begiraleak behar ditu**
Ikastolen Elkarteak begiraleak behar ditu uztailean izango diren euskara, ingeles eta frantseseko udalekuetarako. Argibideetarako, deitu 94 435 43 40 telefonora.

**ELGETA** |

**• Espaloia proiektuaz batzar irekia deitu dute**
Espaloia proiektuaren nondik norakoak azaltzeko batzar irekia deitu dute eguenerako, hilak 17, Espaloia antzokian bertan, 19:30ean.

**OÑATI** |

**• Txantxiku Ikastolan matrikulatzeko epea, zabalik**
Epea zabalik dago otsailaren 25era bitartean. Bulego ordutegia honakoa da: 08:15-12:15 eta 14:00-18:30.

**• Mondragon Unibertsitateak bere eskaintza aurkeztuko du**
MUko ordezkari batek berbaldia egingo du bihar, martitzena, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

**• DBH ondorengoko aukeren gaineko hitzaldia Elkar Hezin**
Ana Sanz orientatzaileak *Eta DBH bukatu ostean, zer?* delako berbaldia egingo du hilaren 16 eta 17an Santa Marinako mediatekan, 19:00etan.

**• Laixan elkartean bazkide egiteko aukera dago**
Laixan elkarteak bazkide kanpaina egiten dihardu, eta informazioa emateko hainbat mahai ipiniko ditu asteburuan Herriko plazan: 12:00-14:00 (zapatuan eta domekan) eta 19:00-21:00 (zapatuan).

**• Odola emateko aukera izango da egubakoitzean**
Txantxiku ikastolan izango dira odol-ateratzeak, 18:00etan.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 76 92 71**

**goienkaria@goiena.com**

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

**• Arrasateko errugbi zelaia egoera penagarrian**

Irakurle batek Arrasateko Garagartza errugbi zelaia izan du gogoan. "Arrasate errugbi taldeko mutilek badute meritua. Zapatuan etxekoek Zarautzen kontra jokatu zuten norgehiagoka garrantzitsua zen oso. Garagartza, ordea, egoera penagarrian zegoen. Lokatza bazter guztietan. Halako patata sororik gero!

**• Bergarako Matxiategi kaleko trafikoa**

Txistuak jaso ditugu, era berean, Bergarako Matxiategi kalean gaizki aparkatzen duten auto gidariendako. "Beti dugu egoera berdina Matxiategin. Bi pauso oinez ez egitearren jendeak denda aurrean uzten du autoa. Noski, errazagoa da iritsi, autoa erdi erdian utzi eta alde egitea!"

**• Eskoriatzako HUHEZIren aparkalekua**

Kasu honetan ere txistua jaso dugu Eskoriatzatik. Honela dio gure irakurleak: "HUHEZIk herritar guztioi zabaldu digu unibertsitateko aparkalekuan autoak uzteko aukera. Bada, ordea, autoa bertan utzi eta azken asteotan batere mugitu ez duenik. Mesedez, errespetu pixka bat!".

**• Hauteskundeetako kartelak lurrean**.

Gure irakurle batek txistua bidali digu lurrean ikusi dituen hauteskunde kartelen harira. "Igandean Europar Itunaren erreferenduma dugu. Kartel gutxi ikusi ditut hormetan, baina zeudenak nola hausten zituzten ikusi dut. Barikuan gazte batzuk ikusi nituen kartelak kentzen eta lurrera botatzen. Gero, domekan, euria izan genuen eta Bergaran behintzat kartel asko hormetatik desitsatsi egin ziren. Lurrean, bazter guztietan zeuden. Garbitzaileak seguru dakitela zertaz ari naizen!".

## Sarean harrapatuta

## Ondo hartzen ditugu etorkinak herrian?

**Etorkinen gaia puri-purian dago orain ere. Madrilgo gobernu sozialistak agindu duenez, maiatzaren 7ra bitartean etorkinen ezohiko erregularizazioa aurrera eramango du. Caritas-en datuen arabera, 600 bat etorkin daude gaur egun Bergaran. Azken egunotan *Goiena.net*-eko Bergarako atalean etorkinen gaia izan da eztabaidagai. Iritzi gutxi baina mamitsuak eman dituzte bergararrek. Hona ekarri ditugu batzuk.**

### OZTOPO UGARI JARTZEN DIZKIEGU ETORKINEI

Gure herrian eta orokorrean, nahiko pertsona hotzak gara eta nahiz eta esan ez garela ez arrazistak ezta baztertzaileak ere, oztopo ugari jartzen diegu gure lagun-taldean sartu, lan bat eskaini edota beraien bizitza aurrera ateratzeko.

Etorkin asko daude gure herrian, eta egia esan ez zait asko axola, baina aldi berean entzuten diren gauzak entzun eta gero, batzuetan beldurra ere sumatzen du jendeak. Baina denetarik dago, etorkin guztiak ez dira berdinak, eta bizitza berri baten bila etorri dira eta hori guk ere errespetatu beharko dugu.

Ane / www.goiena.net

### INTEGRATZEN LAGUNDU BEHAR DIEGU ETORKINEI

Nik ezagutzen ditudan etorkin gehienak saiatu dira gure artean integratzen eta lortu ere egin dute. Baina, hori bai, euren jatorria galdu gabe integratu dira geurean. Eta hori da, nire ustez, garrantzitsuena, euren jatorria galdu gabe bertan integratzea. Horretan guk paper garrantzitsua jokatzen dugu. Ondo azaldu behar diegu zer den hau, zein herri den, zein hizkuntza hitz egiten dugun gehienok... eta gero berak nahi badu integratuko da eta nahi ez badu ez. Baina, lagundu egin behar diegu.

Lore / www.goiena.net

### ORAINDIK AURREIRITZI HANDIAK DAUZKAGU

Orokorrean, ez ditugu ondo hartzen. Oraindik aurreiritzi handiak dauzkagu eta kanpotik bateren bat etortzen denean normalean begi txarrarekin begiratzen diegu. Pentsatzen dugu txarrerako direla beti kanpokoak.

Ni / www.goiena.net

**www.goiena.net**

**Etorkinak gure herrian ondo hartzen ditugula uste duzu?**




Zure iritzia eman nahi baduzu jo *www.goiena.net* webgunera

### EZ DA ERRAZA IZATEN ETORKINEN EGOERA

Ez da erraza izango euren egoera. Batetik norberaren etxea, familia, lagunak... laga eta kilometro mordo batera dagoen herrialde batera etorri behar, norberaren herriko lan egoera ez delako batere ona eta zerbait ezberdina nahi izanez gero ez delako beste aukerarik geratzen.

Bestalde, hona etorri eta bertako ohituretara, hizkuntzara... ohitu behar, inork egin nahi ez dituen lanak egin behar eta gainera bertako jendearen begirada txarra jasan behar. Dena dela gizartea geroz eta kontzientziatuago dago eta ikuspegia hobetzen joango dela espero dut.

L.K. / www.goiena.net

### BETI HARTU IZAN DITUGU ONDO KANPOKOAK

Uste dut Bergaran beti hartu izan ditugula ondo kanpokoak, eta horren adibide dira hemen bizi diren kanpotarrak. Eta, orain, gure Euskal Herri txikia ere globalizazioan sartu da eta bizi hobe baten bila etortzen dira kanpotik. Baina, ez dira etortzen Euskal Herrira, etortzen dira Europara eta erakutsi behar diegu hau, Europaz gain, Euskal Herria ere badela. Kultura bat eta hizkuntza bat daukagula.

Mai / www.goiena.net

## Halaxe erantzun digute

Zein da zure iritziz euskalkien lekua? Zein litzateke erabilera egokia? Erabilera mugatua dute

?



**JUAN MARTIN ELEXPURU** | BADIHARDUGU ELKARTEA

"Berbetan erabiltzen dugu euskalkia gusturen. Ondo erabiltzeko, ordea, erakutsi egin behar da. Ahozko jarduna da, era berean, irratietan eta antzerkietan egiten dena. Batuarekin batera euskalkiek euren lekua beharko lukete hemen. Euskalkiak, ordea, arautu egin beharko lirateke".



**MIREN AZKARATE** | KULTURA SAILBURUA

"Euskalkia hizkuntzaren erabilera zaindua eskatzen ez duen edozein egoeratan ikusten dut nik. Lanean, lagun artean, eskolako azalpen ez formaletan... Hitz egiten dugun moduan idaztea ez dut egoki ikusten. Horrelako erabilerek leku txikia izan beharko lukete nire ustez".



**AMAIA ORMAETXEA** | BERGARAKO JARDUN ELKARTEA

"Ahozko hizkeran ikusten dut euskalkia. Idazten dugunean arazoak ditugu, ez digutelako erakutsi eta arautu gabea delako. Kartelak egiten ditugunean, esaterako, bergararrendako ari gara eta horrelakoetan euskalkia erabil daiteke. Indartu egin behar dugu euskalkia eta gehiago baloratu".



**SERGIO AZKARATE** | GOIENKARIAKO ZUZENTZAILEA

"Koldo Zuazok esaten euen euskalkixek ibilttiek ez dakarrela euskera batue bazterketie. Geure komunikabidietan euskera batue ibiltten dogunien be, ibarreko herrixetako berbetak hartu biherko geuke oiñarritzat; eta zera lortuko geuke: euskerie izetie batue, naturala eta bizixe. Hola biher dau-eta".

## Egunkarietako harribitxiak

**BETI DA HOBE LAZTANA...**
Gaur, astelehena, San Valentin eguna da. Horren harira ohikoa da aldizkariek bikoteari egin ahal zaizkion oparien gaineko erreportajeak kaleratzea. Normalean opari materialak izaten dira, baina atzo bestelako proposamena egin zuen *Magazine*ak: laztanak oparitzea. Hainbat adibide jaso zituen.

**'El Mundo'**
2005-02-13


San Valentín
Siempre es mejor una caricia...

**'OVERBOOKING' ARAU BERRIA INDARREAN SARTU DA**
Hiru urtez eztabaidatu ondoren, *overbooking*aren kontrako Europako legeak berritu egingo dituzte astean. Hilaren 17an, hain justu ere, indarrean sartuko da aire-bidaiariendako konpentsazio eta laguntza neurriak ezartzen dituen araudia. Halako egoeretan eragingo du: ontziratzea ukatzen denean eta hegaldiak atzeratzen edo bertan behera geratzen direnean. Gainera, hegaldi erregularretarako eta ez erregularretarako balioko du. Bestalde, txartel gehiago saltzeagatik ontziratu gabe ahalik eta bidaiari gutxien gera dadin, boluntariotzan eta kalte-ordainean oinarritutako sistema ezarri dute. Bere lekua lagatzen duen boluntarioak kalte-ordaina jasoko du edo beste onura batzuk.

**'Gara'**
2005-02-13


Entra en vigor la nueva norma sobre «overbooking»
El texto final rebaja las indemnizaciones

## Tira, tira...



**Martintxo** 'Berria' | 2005-II-13

## Zorroztailea



# Ibili ginen... Majo ibili ginen!

*Aste honetan Eskoriatzako Ibarraundi jauregian Zubillagako hiltegia eta Debagoieneko harakin eta ganaduzaleen etorkizuna jardunaldiak egin dituzte. Martitzenean eta eguaztenean hitzaldi aretoa lepo bete zen hainbat herritatik joandako ganaduzale, harakin eta, oro har, interesa zuen jendearekin.*

**'Goienkaria'** | 2005-02-11

Jota Jota Arrieta

Hau duk hau! Egunkarietara jo behar norbera zertan ibili den jakiteko. Goiko berria irakurri eta pasa diren inauteriek beste zentzu bat hartu dute niretako. Kontua da, taldeko batek hala eskatuta, talde osoa atera ginela matarife edo harakin mozorrotuta. Amantal zuriak, praka zuriak, katiuskak, gantxoak, labanak, odol ugari... eta *Hiltegia bizirik* leloa zekarren pankarta bat. Inauteriak zirela eta galderarik ez. *Konflikto*ari buruzko txiste txarra, edo auskalo zeini halaxe otutako hitz jokoa izango zelakoan, ibili ginen... majo ibili ginen!

Baina ez, jardunaldietan ikusi eta entzun ahal izan dugun bezala ibili ginen baserritar, harakin, albaitari eta kontsumitzaileen alde. Ibili ginen okelaren kalitatearen alde. Ibili ginen ibarrerako hiltegi publiko baten aldeko apustua kaleratzen. Ibili ginen okelaren sektorea harakintza handien esku gera ez dadin eske. Ibili ginen banaketa talde erraldoien monopolioaren kontra. Ibili ginen garapen iraunkorraren alde. Eta gutxi gorabehera, horixe bera esan dute jardunaldietara etorri zirenek ere. Baita bertan izan ziren politikariek ere. Eta talde guztietakoak izan ziren jardunaldiotan...

Puntu honetara helduta, denak bat baldin badatoz, nolatan hiltegia itxi? Galdera hauxe egin diot Mondrauko Contu Contalariak aholkularitzan lanean dabilen lagun bati. Banaketa eta talde hitzak mar-mar baten aipatu eta gero, On Kixoteren V. Mendeurrenerako erantzuna: "Santxo laguna, Elizarekin topo eiñ juau".

**"Jardunaldietan ikusi eta entzun dugun bezala ibili ginen baserritar, harakin, albaitari eta kontsumitzaileen alde"**

**"Horixe esan dute jardunaldietara etorri zirenek ere. Baita han izandako politikariek ere. Denak bat badatoz, nolatan itxi hiltegia?"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Berria'
**ERAGILE ESKUBIDEAK**

Beste pegatina bat Lazkaoko artxibora bidean jartzeko aukera eman berri digu poliziak. *Beneditarrak askatu!* Lazkaon bilduta dauden beste pegatina, paskin, panfleto (*octavilla* deitzen zien polizia frankistak) eta dokumentu asko eragin du poliziak, erresistentzia kulturalaren eta politikoaren eragile sozial nekaezin portatu zaizkigu beti.

**Anjel Lertxundi**
2005-02-13

### 'El Mundo'
**EUSKADI EZ DA ULSTER**

ETAk, haren beso politikoak, eta EAJk beti parekatu nahi izan dituzte Euskadiko egoera eta Ulsterren bizi izandako bake prozesua. Ezberdintasunak nabariak dira. Ulsterrak denetarik pasatu du historian zehar eta Euskadi beti izan da Espainiako parte. Ipar Irlandan bi komunitate buruz buru daude; euskal probintzietan hori ez da gertatzen.

**Editoriala**
2005-02-13

### 'El Diario Vasco'
**BESTE SARE HIGUINGARRI BAT**

Informazioaren gizartean, erabateko askatasuna dago komunikazioekiko, eta horrek badu alderdi ilun bat, gurasoek eta irakasleek eurena egin behar dutena. Gazteek sarea nola erabiltzen duten ezagutzea eta kontrolatzea zaila izan daiteke adin batzuetan, baina permitibitatearen izenean ardurari ihes egitea oso txarra izan daiteke.

**Editoriala**
2005-02-13

### 'Deia'
**ARDURATSUA BOLANTEAN**

Alkohol neurria gaindituta ei zegoen *gidari suizida* batek hildako gaztearen heriotzak agerian laga du berriz ere, errepide segurtasuna norberaren ardurapean dagoela. Baina norberaren ardura iristen ez den lekuetan, arautegi gogor eta sendo baten beharra dago. Arduragabekerien aurrean elkar ulertzeak kontzientziazioa eragozten du.

**Deia**
2005-02-13

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Erredakzioa** Marijo Deogracias, Jokin Etxebarria, Ion Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

**Jatorrizko diseinua** Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Presidentea** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KIROLA

• Arrikrutzek garaipen garrantzitsua lortu zuen Trapagaranen kontra | 18
• Arrasate Errugbi Taldeak Zarautzi irabazita errazagoa du maila eustea | 20



Alvaro Arregi Besaide mendi taldeko kidearekin egon gara aste honetan | 21

**FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK**

ATHLETIC
**4-4**
BETIS

**Athletic** | Arantzubia, Iraola, Murillo, Luis Prieto, Del Horno, Gurpegi, Tiko, Arriaga (Solabarrieta 63. min.), Yeste (Guerrero 86. min.), Ezkerro eta Urzaiz.

**Betis** | Doblas, Luis Fernandez, Juanito, Lembo, Cañas, Joaquin, Assunçao, Arzu, Fernando (Benjamin 20. min.), Edu eta Oliveira.

**Golak:** | 0-1 Oliveira. 0-2 Joaquin. 0-3 Oliveira. 1-3 Urzaiz. 2-3 Urzaiz. 3-3 Gurpegi. 4-3 Yeste. 4-4 Oliveira.

**Epailea** | Lizondo Cortes. Lemboren kanporaketa asmatu egin zuen. Bestela, ondo egon zen.

**Bestelakoak** | Ez zen bete San Mames, baina betiko moduan taldea amaiera arte animatu zuten. Hala ere, Athleticek zelaian erakusten duen gogoarekin hildako bat ere berpiztuko luke. Denboraldi ederra eskaintzen dihardute jokalari zuri-gorriek euren zaleei. Hauek, nola ez, euren animuekin taldea etengabe laguntzen dute.

## Bikain

**Urzaiz**
Athleticek golak behar zituenean etorri ziren Ismaren bi golak. Berak dakien moduan sartu zituen: buruaz. Jokalari garrantzitsua dela gogorarazi zuen tuterarrak.

## Kaskar

**Ezkerro**
Aurrealdean izan zituen aukeretan ez zuen bukatzen asmatu. Konfidantzarekin jokatzen duenean gol asko ematen dizkio Athletici. Bere abiadura eta teknika beharrezkoa du taldeak.

## Esandakoak

"Futbola nire lana da eta golak sartzea nire lanaren parte da. Amaieran zapore garratzarekin gelditu gara".

**ISMAEL URZAIZ** | ATHLETICEKO JOKALARIA

"Partiduaren nondik norakoa ikusita berdinketarekin pozik egon gaitezke; eta bihar, Vienara".

**ERNESTO VALVERDE** | ENTRENATZAILEA



ARGAZKI PRESS

Yesteren golak poz handia ekarri zuen Athleticeko jokalari eta zaleei. Lehenago Urzaizek bere bi golak sartuak zituen.

**ATHLETIC** | ZORTZI GOLETAKO PARTIDUAN DENETATIK PASA IZAN ZITEKEEN

# 3 puntu galdu, 3 irabazi eta azkenean bakar bat eta pozik



Ion Unamuno

*Osasunaren kontrako partidua askok gogoratu genuen atzokoan. Hala ere, amaiera ez zen berdina izan eta launako berdinketan amaitu zen partidu ziraragarria*

Betiseko aurrelarien abiadura min handia egiten hasi zen hasiera batean. 26. minuturako hiru gol sartu zizkiguten sevillarrek. Eskuin hegaletik Joaquinek Del Horno behin eta berriro gainditzen zuen eta berak egindako golaz gain, Oliveirari beste gol bat oparitu zion. Beste pizti bat brasildarra, izan ere, Oliveirak hiru gol sartu zituen.

Aurrean Athletic handi bat zegoen. 0-3 markagailuarekin kornerraren bidez hiru gol sortu zituzten: bi Urzaizek eta beste bat Gurpegik. San Mames berriro ere bere taldea garaipenera eramaten laguntzen zebilen eta horrela 24. minutuan Yestek laugarren gola sartu zuen eskuinetik egindako sarrera batekin. Lembo kanporatua izan zen eta garaipena gero eta errazagoa ikusten zen. Yeste lurrera jausi zen eta epaileak Lembok bultzakada eman ziola erabaki zuen.

**BAT GUTXIAGOREKIN HOBETO**

Azkeneko hamar minutuetan Betis berdinketaren bila joan zen eta baita lortu ere. Oliveirak eman zuen lehen abisua 31. minutuan. Bost beranduago gola etorri zen eta golegilea nor izango eta Oliveira.

Eguaztenean UEFAko partidua jokatuko dute Vienan eta hurrengo zapatuan R. Madrilen kontra Santiago Bernabeun. Partidu politak izango dira, biak ala biak.

## FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

### • ATHLETIC HIRU TXAPELKETETAN EGONIK, GABARRA ATERAKO DUTE?



**UGUTZ ETA ERIKA** | BERGARA

**"Gabarra aspaldiko partez Nerbioiko uretan ikusteak ilusio handia egingo liguke"**

Errealzaleak izan arren, Athleticek txapelketaren bat irabaztea gustura ikusiko lukete. "Gabarra aspaldiko partez Nerbioiko uretan ikusteak ilusio handia egingo liguke", azpimarratu zuten Ugutzek eta Erikak.



**FELIX BARTOLOME** | OÑATI

**"Gabarra gertu daukagu, Kopa ia irabazita dago eta"**

"Poliki-poliki joan behar den arren, gabarra gertu daukagu, Kopa ia irabazita dago eta. UEFAn ere aurrera helduko gara".



**JOSEBA ETA IBAI** | ARETXABALETA

**"Kopan gelditzen diren taldeetatik indartsuenak direlako irabaziko dute"**

"Kili kolokako hasiera izan ostean, indartsu dabiltza bilbotarrak. Ligan UEFAko postuetan amaituko dute, eta Kopan gelditzen diren taldeetatik indartsuenak direlako irabaziko dute".



**IÑIGO, GORKA, UNAI ETA IBAI** | OÑATI

**"Birritan aterako dute gabarra: Kopa irabazteagatik eta UEFA irabazteagatik"**

Asko gustatzen zaie Athleticen taldea. Yeste, Del Horno eta Llorente dituzte jokalari atseginenak. Atzerritarrik gabe jokatzeak duen meritua azpimarratzen dute eta gabarraren kontuan ez dute zalantzarik: "birritan aterako dute gabarra: Kopa irabazteagatik eta UEFA irabazteagatik", diote oñatiar gazte hauek.



**JULEN ETA OIER** | BERGARA

**"Gabarra UEFA irabazteagatik aterako dute"**

"Europa mailako txapelketa irabazteagatik aterako dute gabarra. Aurtengo urtean fin dabiltza eta ziur gaude irabaztea lortuko dutela Athleticeko jokalariek".

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Mallorca-Albacete | 2-1 |
| Zaragoza-Athletic | 1-4 |
| Athletic-Betis | 4-4 |
| Valentzia-Deportivo | 1-2 |
| Osasuna-R. Madril | 1-2 |
| Racing-Reala | 1-3 |
| Espanyol-Getafe | 2-0 |
| At. Madril-Levante | 0-0 |
| Sevilla-Vila-real | 2-1 |
| Numantzia-Malaga | 0-1 |

**HURRENGOAK**

R.Madril-Athletic
Vila-real-At. Madril
Betis-Deportivo
Malaga-Espanyol
Reala-Sevilla
Racing-Valentzia
Levante-Zaragoza
Bartzelona-Mallorca
Getafe-Osasuna
Albacete-Numantzia

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. **Bartzelona** | **54** | 23 | 17 | 3 | 3 | 47 | 17 |
| 2. **Real Madril** | **50** | 23 | 16 | 5 | 2 | 43 | 17 |
| 3. **Sevilla** | **41** | 23 | 12 | 6 | 5 | 28 | 24 |
| 4. **Valentzia** | **38** | 23 | 10 | 5 | 8 | 35 | 23 |
| 5. **Betis** | **38** | 23 | 10 | 5 | 8 | 37 | 28 |
| 6. **Espanyol** | **38** | 23 | 11 | 7 | 5 | 28 | 24 |
| 7. **Vila-real** | **37** | 23 | 10 | 6 | 7 | 38 | 19 |
| 8. **At. Madril** | **33** | 23 | 9 | 8 | 6 | 24 | 20 |
| 9. **Athletic** | **32** | 23 | 8 | 7 | 8 | 37 | 32 |
| 10. **Deportivo** | **32** | 23 | 7 | 5 | 11 | 33 | 32 |
| 11. **Osasuna** | **29** | 23 | 8 | 10 | 5 | 33 | 39 |
| 12. **Zaragoza** | **28** | 23 | 8 | 11 | 4 | 29 | 38 |
| 13. **Reala** | **26** | 23 | 7 | 11 | 5 | 29 | 34 |
| 14. **Getafe** | **26** | 23 | 7 | 11 | 5 | 22 | 27 |
| 15. **Levante** | **26** | 23 | 7 | 11 | 5 | 25 | 36 |
| 16. **Malaga** | **25** | 23 | 7 | 12 | 4 | 16 | 30 |
| 17. **Albacete** | **23** | 23 | 5 | 10 | 8 | 21 | 31 |
| 18. **Mallorca** | **21** | 23 | 5 | 12 | 6 | 23 | 37 |
| 19. **Racing** | **21** | 23 | 5 | 12 | 6 | 21 | 36 |
| 20. **Numantzia** | **14** | 23 | 3 | 15 | 5 | 13 | 38 |

**Kiniela**

**KINIELA**

| | |
|---|---|
| 1. Sevilla-Vila-real | 1 |
| 2. Racing-Reala | 2 |
| 3. Valentzia-Deportivo | 2 |
| 4. Athletic-Betis | X |
| 5. Osasuna-R.Madril | 2 |
| 6. Espanyol-Getafe | 1 |
| 7. Numantzia-Malaga | 2 |
| 8. Mallorca-Albacete | 1 |
| 9. Zaragoza-Bartzelona | 2 |
| 10. At.Madril-Levante | X |
| 11. Celta-Sporting | 1 |
| 12. Valladolid-Murtzia H. | 1 |
| 13. Elx-Pontevedra | 1 |
| 14. Cadiz-Almeria | 1 |

**Reala**

# Egindako lehen zati onari esker lortu zuen urteko lehen garaipena Realak

*Bigarren zatian, beti bezala, sufritzea egokitu zen, Realak kaniketara ere ez zuen jokatu eta*



Jokin Etxebarria

Azkenean heldu da urteko lehen garaipena. Kostata, baina heldu da. Zelai egokian heldu gainera, atzo Santanderren irabazi eta gero, Racing eta jaitsiera postuak bost puntutara uzten direlako. Hala ere, ezin daiteke esan garaipen erraza izan zenik, nahiz eta bi goletako abantailarekin amaitu partidua. Eta ez zen partidu erraza izan Realak zaildu zuelako.

Lehen zati bikaina jokatu eta gero, bigarren zatian txuri-urdinak guztiz geldotuta ibili ziren. Ezin baloi bat lapurtu, ezin erasora irten, eta area barrutik baloia kostata ateratzen zuten. Eskerrak Riesgok egundoko partidua egin zuen, eta eskerrak, Racing taldekoak nahiko txarrak diren, bestela, atzokoan ere, puntuak lortzeko larri ibiliko ziren Realekoak. Zaila da ulertzen nola aldatu daitekeen horrenbeste talde bat zati batetik bestera.

Valentziaren aurkako sistema eta jokalari berdinak erabiltzea erabaki zuen Amorrortuk, eta ez litzateke harritzekoa izango hurrengo partiduetan ere berdinak erabiltzea, oraingoz fruitu onak eman dizkio eta.

Partidua Relarendako ederki hasi zen. Lehen hamar minututan bi gol egin zitutzen donostiarrek. Gainera, lehen gola, gure zaharrek bakarrik oroituko duten horietako bat izan zen: entseatutako falta jokaldi batean. Realak urteak zeramatzan entseatutako jokaldi batean gola sartu gabe. Atzo lortu zuen Sardineron, eta Amorrortuk pentsatua zuen jokatzeko erari asko lagundu zion. Izan ere, Realak hasiera-hasieratik baloia Santanderrekoei ematea pentsatu zuen. Atzean sendo egonez, kontraerasoan min egiteko esperantzaz. Gainera, lehen zatiko hamargarren minuturako bi gol egiten badituzu, are eta hobeto. Baina bigarren zatian Realaren jokoa guztiz aldatu zen. Gauza bat da, baloia kontrarioari eskaintzea, eta beste bat da, ez jokatzea. Hori da bigarren zatian Realak egin zuena: ez jokatu.

**PROTAGONISTA ASKO**

Nihat da protagonistetako bat. Berriz ere bi gol sartu zituen turkiarrak, eta zoritxarrez, bere etorkizuna Realetik urrun dago. Bigarrena Mladenovic izan zen. Serbiarrak bere lehen minutuak jokatu zituen Realarekin. Baina, ez zuen gehiegi erakutsi. Beste protagonista bat Barkero izan zen. Aspaldiko partez minutuak izan zituen jokatzeko.

**RACING**

# 1-3

**REALA**

**Racing** | Aoute, Mora, Casar, Oriol (Pedro Lopez 52. min.), Juanma (Jonathan 58. min.), Torrado (Moran 54. min.), Regueiro, Anderson Silva, Aganzo, Javi Guerrero eta Benayoun.

**Reala** | Riesgo,Labaka, Garrido (Brechet 86. min.), Zubiaurre, Karpin, Aranburu, Mikel Alonso, Xabi Prieto (Mladenovic 65. min.), Kovacevic, Nihat (Barkero 89. min.) eta Luiz Alberto.

**Golak:** 0-1 Aranburu. 0-2 Nihat. 0-3 Nihat. 1-3 Anderson Silva.

**Epailea:** Esquinas Torres. Ondo.

## Bikain

**RIESGO**

Aurreko asteetan hutsak egin izan ditu, baina atzokoan atezain bikaina dela erakutsi zuen Debakoak, bigarren zatian batez ere, gelditu asko egin zituen atezainak.

## Kaskar

**JOSE MARI AMORRORTU**

Deustokoak oso aldaketa arraroak egiten ditu. Karpin lur jota egon arren, gazteak aldatu zituen. Bai Xabi Prieto eta baita Nihat ere.

**Santanderren irabazita jaitsiera postuak bost puntura daude**

**Urteak zeramatzan Realak entseatutako jokaldi batean gola sartu gabe**

PREFERENTE MAILA



AITOR LIZARRALDE

Zelai erdiko jokoan jaun eta jabe izan ziren Josu Zubiaren mutilak.

# Etxean jokatutako partidurik onenetarikoa

MONDRA
**2-0**
REAL UNION

**Mondra** | Ander, Loiti, Markel, Kepa Merkader, Argider, Garmendia (Iker Laspiur 90. min.), Illart (Eldin 90. min.), Inazio (Maikel 70. min.), Muxi (Jokin 92. min.), Keixi eta Asier (Ruben 84. min.).

**Real Union** | Iruretaguena, Berasaluze, Zugarramurdi, Iriarte, Arregi, Aizpurua (Gimenez 79. min.), Idarramendi (Santiago 89. min.), Ibañez (Del Rey 79. min.), Arrondo (Urtizberea 89. min.), Uranga eta Azpiroz (Perez 73. min.)

**Golak:** 1-0 Maikel. 2-0 Muxi.

**Epailea:** Larrañaga jauna. Bera ondo, baina marrazainek ez zioten asko lagundu.

Jokin Etxebarria

Beharra zuen Mondrak garaipena lortzeko. Bigarren itzulia hasi zenetik, punturik lortu gabe zegoen talde zerrajeroa. Eta, lortu zituen hiru puntuak, denboraldi osoan etxean jokatutako partidurik onenetariko batean. Partidu osoan jaun eta jabe izan ziren. Etxekoen zelai erdiko jokalariak baloiaren jabe egin ziren, eta batetik bestera bikain mugituta aukera asko sortu zituzten. Azkeneko emaitza 5-0 izan zitekeen lasai-lasai, etxekoen hiru gol baliogabetu zituelako epaileak eta etxeko aurrelariek aukera asko bertan behera utzi zituztelako atezainaren aurrean.

Baina hau guztia azken ordu laurdenean aldatu zen.

**MAIKELEN IRTEERA**

Partida amaitzeko 20 minutu falta zirela, Josu Zubiak Maikel atera zuen zelaira, eta aldaketa oso ondo irten zitzaion. Izan ere, erdilariak ukitu zuen lehen baloian kontraerasora irteteko aprobetxatu zuten etxekoek, eta Maikelek berak sartu zuen etxekoen lehen gola. Hortik aurrera, kanpokoek gora joan behar izan zuten, baina azken minutuan, berriz ere eskuin hegaletik egindako jokaldi bikain batean, etxekoen bigarrena sartu zuen Muxik, bigarren zutoinean itxaroten zegoela baloia sareetara bultzatuz.

# Denboraldiko partidu onenean, garaipen bikaina

TOURING
**1-4**
ALOÑA MENDI

**Touring** | Anso, Lopetegui (70. min. Araneta), Imanol (70. min. Mitxelena), Esteban (40. min. Joseba), Dorronsoro, Luis, Calvo, Sanchez (75. min. Aitor), Blanco, Joseba eta Sergio (77. min. Munarriz).

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Lopez, Barrena, Jon, Olalde, Igartua, Garai (30. min. Astigarraga), Mikel, Albizu, Moiua (56. min. Idigoras) (74. min. Arregi) eta Aramendi (61. min. Losada).

**Golak:** 0-1 Moiua. 0-2 Albizu. 1-2 Blanco. 1-3 R. Idigoras. 1-4 R. Idigoras.

**Epailea:** Morales Hernando. Bere lana ederki bete zuen.

A.G.

Pasa den zapatuko partidua ikusita, etxeko taldeak zirudien sailkapeneko zuloan sartuta dagoena eta ez Aloñak.

Partidua goitik behera menderatu zuten Aitor Oruetaren mutilek.

**DENA ONDO EGIN ZUTEN**

Presio bikaina eginez, eta kontraerasoak bikain amaituz, 0-2 jarri ziren aurretik. Etxekoek beraien gola sartu zuten. Aloñak bikain erreakzionatu, eta hirugarrena sartu zuen, etxekoen esperantzak bertan behera utziz. Arratsaldea borobiltzeko, laugarrena ere egin zuten Aloñakoek. Garaipen bikaina zapatukoa.



AITOR LIZARRALDE

Ez zuen partidua galtzerik merezi UDA taldeak.

# Puntuak lortzea gero eta zailagoa egiten zaio UDAri

UDA
**1-2**
TOLOSA

**UDA** | Eriz, Lur, Oxel, Iturbe, Armendariz, Andoni (Nuñez 82. min.), Joseba (Iñaki 77. min.), Canas, Arriaga (Azkue 77. min.), Erik (Errasti 87. min.) eta Haritz (Vadillo 85. min.).

**Tolosa** | Apezetxea, Sagastibeltza, Garmendia, Ayerbe, Artola (Illunbe 53. min.), Romero, Orue, Zuloaga (Regillaga 66. min.), Lasa (Aranguren 88. min.), Prados (Garagarza 78. min.) eta Elola (Blanco 66. min.).

**Golak:** 1-0 Andoni. 1-1 Lasa. 1-2 Lasa.

**Epailea:** Javier Estebanez. Txukun adierazi zuen epaileak.

Ion Unamuno

Sailkapenean aurrean dagoen Tolosaren bisita izan zuen UDAk atzokoan. Azkenaldian ez dabiltza fin Nekaren mutilak eta halako arerio baten kontra irabazteak konfidantza handia emango zien aretxabaletarrei.

Nahiz eta Tolosak baloi jabetza gehiago izan, UDAk sortu zituen aukera arriskutsuenak. Horrela, Andonik 27. minutuan etxekoen gol bakarra sartu zuen. Hurrengo bi jokaldietan Arriagak gola sartzeko aukera onak izan zituen, baina inuzentekeriak batean eta atezainak bestean, ez zioten laga gola sartzen.

**LUIS LASAK BIRRITAN**

Tolosako aurrelariak buelta eman zion partiduari. Lehenengoan area barrutik atera jaurtita eta bigarrenean falta batean. Bi areatan egon ziren aukera batzuk, baina markagailua ez zen gehiago mugitu.

Eguaztenean jokatuko dute atzeratutako partidua Aretxabaletako mutilek eta hurrengo asteburuan Aloñaren kontrako derbia jokatuko da.

# Irabazi beharreko beste partidu batek ihes egin du

UROLA
**2-0**
BERGARA

**Urola** | Aritz, Lasa (Nogales 59. min.), Alberdi (Godoy 88. min.), Zufiaurre, Elgarresta, Caballero, Valentin (Ioritz 71. min.), Zubiaurre, Aresti, Asier eta Roberto.

**Bergara** | Markel, Ibai (Aritz Agirre 46. min.), Ormaetxea (Mujika 80. min.), Berraondo, Loiola, Oskar, Zubikarai (Martin 73. min.), Imanol (Alzola 62. min.), Garin, Otero eta Unai Agirre (Arana 46. min.).

**Golak:** 1-0 Caballero. 2-0 Zufiaurre.

**Epailea:** Jon Atorrasagasti. Ez zen partidu zaila izan epailearendako. Marrazainek ere ondo adierazi zituzten jokaldiak.

Asteleheneko Goienkaria

Ahazteko moduko partidua izan zen Urolaren kontra jokatutakoa. Atzean gaizki, erdialdean gaizki eta aurrean ere gaizki. Urola ez da talde indartsu bat eta horrelako partiduetan zerbait positiboa atera behar da.

Bigarren zatiko 15. eta 16. minutuetan sartu zizkioten bi golak Bergarari. Minutu batean partidu baten itxaropen guztiek alde egin zuten. Bergarakoek baloia zutoinera bi aldiz bota arren, arrisku gutxi sortu zuten.

**ETXEKO PARTIDUAK FINALAK**

Kanpoan ez badira puntuak lortzen, etxean lortu behar dira. Hori argi eta garbi dago. Beraz, liga amaitu arte bi aukera dituzte Bergarako jokalariek: kanpoan puntuak lortzen hasi edo etxeko partiduak final bihurtu.



Aitor Berraondo atzelaria.

• SENIOR MAILAKO NESKAK (IGOERA FASEA)



AITOR LIOZARRALDE

**MONDRA 4 - ZUMAIAKO 1**

Igoera faseko lehen partidua galdu ondoren, mondragoeko neskak garaipena lortzeko irrikan zeuden, eta atzo erraz lortu zuten Zumaiakoren aurka. Partidua nahiko aspergarria izan zen. Ez zen joko politegirik ikusi. Zelaiak ez zuen bat ere laguntzen. Lehen zatian bi gol jarraian egin zituzten etxekoek, baina zati hau bukatzear zela kanpokoek gola egin zuten penaltiz. Hala ere, bigarren zatian beste bi gol jarraian sartuta erabakita utzi zuten partidua etxekoek.

• BIGARREN ERREGIONALA

## Antzuolarrek irabaztea merezi izan zuten

ANTZUOLA
**1-1**
URKI

A.G.

Partidu kaskarra izan zen joan zen zapatuan Antzuolak eta Urkik Estalako futbol zelaian jokatutakoa.

Hasiera hasieratik, bi taldeek ez zuten jokorik egin nahi, eta baloia alde batetik bestera zebilen. 25. minutuan, Urki taldeko jokalari batek bigarren txartel horia ikusi zuen, eta jokalari bat gutxiagorekin gelditu ziren kanpotarrak. Horrela, husnako berdinketarekin amaitu zuten lehen zatia.

Bigarren zatia hasi eta berehala, etxeko taldea aurreratu egin zen, Xabi Azkarateren gol bati esker. Antzuolarrek bigarrena egiteko aukera ere izan zuten, baina izandako bi aukera garbietan ez zuten golik sartu. Partidua etxekoen garaipenaz amaituko zela zirudienean, Urki taldeak, izandako aukera bakarrean, berdinketaren gola sartu zuen.

• OHOREZKO GAZTEAK

## Merituak ikusita berdinketa emaitza justua izango litzateke

MONDRA
**2-3**
MARIÑO

Ion Unamuno

Partidu borrokatua izan zen Mondrak eta Mariñok jokatutakoa. Nahiz eta Mariño markagailuan beti aurretik egon, Mondrak berdinketa merezi izan zuen.

Losadak egindako penalti baten ostean aurreratu ziren irundarrak Josebaren gol batekin. Zabaleta atezainaren akats baten ondorioz etorri zen Josebaren bigarren gola. Hala ere, Mondra ez zegoen besoak jaisteko prest eta Juradoren baloi loratu batekin hasi zen jokaldi batean, Corcueraren gola etorri zen. Berehala beste penalti bat adierazi zioten Mondrari eta Josebak bere hirugarren gola sartu zuen. 35. minutuan Julen kapitaina kanporatua izan zen eta partidua pixka bat berotu zen. Bigarren zatian Mondra izan zen nagusi 10 jokalarirekin. Bost minutu faltan Corcuerak bigarren gola sartu zuen.

• 2. MAILAKO KADETEAK

## Gorka izan zen partiduko heroia egin zituen geldituekin

BERGARA
**3-1**
ANTZUOLA

Ion Unamuno

Gertutasuna dela eta, beti izan ohi dira partidu bereziak Bergara eta Antzuolaren artekoak. Horregatik, beharbada, irauli zuen markagailua Bergarak. Kontraeraso batean Hodeik sartu zuen Antzuolaren gol bakarra. Aitor Gorosabelen mutilek gogor jarraitu zuten eta falta baten ondorioz heldu zen banakoa Unairen buruko batekin.

Bigarren zatiaren hasieran Asierrek gol ederra sartu zuen. Teknika handiko jokalaria da eta baloi loratu baten bidez bi eta batekoa ezarri zuen markagailuan. Orduantxe suspertu ziren antzuolarrak, baina aurrean partiduko heroia topatu zuten. Izugarrizko bi geldiketa egin zituen Gorkak. Lehenengoan Aitzolen buruko batean eta bigarrenean Xabi Arbuluren jaurtiketa batean. Partidua amaitzeko, Andonik Bergararen hirugarren gola sartu zuen.



### Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

**ALOÑAREN DENBORALDIKO PARTIDURIK ONENA**

Aloñak denboraldia sufritzen hasi zuen; hasieratik sailkapenean beheko zuloan sartu zen, eta jokalariek gogo asko ipintzen zuten arren, emaitzak ez ziren heltzen.

Ordutik, kosta egin zaie joko ona egitea, eta batez ere ate aurrean asmatzea. Baina asteburu honetan, Aloña berria ikusi ahal izan dugu. Partidu bikain batean eta lau gol eginez, gainera, Touring hartu du mendean. Badirudi argia ikusten hasi direla zuloaren amaieran.

### Emaitzak eta sailkapenak

**PREFERENTE MAILA**

Sailkapena

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **EHU** | **51** | 24 |
| 2. **Tolosa** | **49** | 24 |
| 3. **Ordizia** | **44** | 24 |
| 4. **Zarautz** | **42** | 24 |
| 5. **Touring** | **37** | 24 |
| 6. **Trintxerpe** | **37** | 24 |
| 7. **Pasaia** | **35** | 24 |
| 8. **Real Union** | **33** | 23 |
| 9. **Orioko** | **32** | 24 |
| 10. **Mondra** | **31** | 23 |
| 11. **Zestoa** | **30** | 24 |
| 12. **Anaitasuna** | **29** | 24 |
| 13. **Hondarribia** | **28** | 23 |
| 14. **Aretxabaleta** | **27** | 23 |
| 15. **Mutriku** | **26** | 23 |
| 16. **Urola** | **26** | 23 |
| 17. **Bergara** | **25** | 24 |
| 18. **Aloña Mendi** | **25** | 24 |
| 19.**Beti Gazte** | **23** | 24 |
| 20. **Oiartzun** | **15** | 24 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| Zarautz-Zestoa | 2-1 |
| Touring-Aloña Mendi | 1-4 |
| Aretxabaleta-Tolosa | 1-2 |
| Pasaia-Anaitasuna | 0-1 |
| Mondra-Real Union | 2-0 |
| Beti Gazte-Trintxerpe | 3-4 |
| Orioko-Hondarribia | 2-0 |
| Urola-Bergara | 2-0 |
| Ordizia-Oiartzun | 3-0 |
| Mutriku-EHU | 2-3 |

Hurrengoak

EHU-Zarautz
Zestoa-Touring
Aloña M.-Aretxabaleta
Tolosa-Pasaia
Anaitasuna-Mondra
Real Union-Beti Gazte
Trintxerpe-Orioko
Hondarribia-Urola
Bergara-Ordizia
Oiartzun-Mutriku

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**

Sailkapena

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **Barakaldo** | **45** | 21 |
| 2. **Tolosa** | **44** | 21 |
| 3. **San Inazio** | **42** | 21 |
| 4. **Durango** | **37** | 21 |
| 5. **Eibar** | **36** | 21 |
| 6. **Aloña Mendi** | **35** | 21 |
| 7. **Zugatzarte** | **30** | 21 |
| 8. **Amorebieta** | **28** | 21 |
| 9. **San Martzial** | **27** | 21 |
| 10. **Elgoibar** | **26** | 21 |
| 11. **Zalla** | **25** | 21 |
| 12. **Lagun Onak** | **24** | 20 |
| 13. **Olarizu** | **21** | 21 |
| 14. **S.Herrera** | **19** | 21 |
| 15. **Bermeo** | **17** | 21 |
| 16. **Alde Zaharra** | **7** | 20 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| Alde Z.-Aloña M. | 2-4 |
| Lagun Onak-Olarizu | 2-1 |
| Tolosa-Elgoibar | 4-1 |
| Barakaldo-Eibar | 1-2 |
| Bermeo-Zugatzarte | 2-1 |
| Amorebie.-San Inazio | 2-2 |
| San Mart.-Sporting H. | 0-2 |
| Zalla-Durango | 1-1 |

Hurrengoak

Olarizu-Aloña Mendi
Elgoibar-Lagun Onak
Eibar-Tolosa
Zugatzarte-Barakaldo
San Inazio-Bermeo
Sporting H.-Amorebieta
Durango-San Martzial
Zalla-Alde Zaharra

**BESTELAKOAK**

**GAZTEEN OHOREZKO LIGA**

| | |
|---|---|
| Hondarribia-Aretxabaleta | 2-1 |
| Mondra-Mariño | 2-3 |

**LEHEN MAILAKO GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Bergara-Amaikak Bat | 4-0 |
| Lengokoak-Arrasate | 5-2 |
| Aretxabaleta B Ariz.-San Inazio | 6-2 |

**BIGARREN MAILAKO GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Antzuola-Eibartarrak | 5-0 |
| Bergara | ATSEDENA |

**KADETEEN OHOREZKO MAILA**

| | |
|---|---|
| Kostkas-Arrasate | 0-0 |
| Aloña Mendi-Antiguoko | 0-2 |
| Sto.Tomas Lizeoa-Bergara | 0-2 |

**LEHEN MAILAKO KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Touring-UDA Arizmendi | 3-3 |

**BIGARREN MAILAKO KADETEAK**

| | |
|---|---|
| UDA Arizmendi-Urki | 4-1 |
| Bergara-Antzuola | 3-1 |

**EMAKUMEZKOEN LIGA(IGOERA)**

| | |
|---|---|
| Ostadar-Aloña Mendi | 2-2 |
| Bergara-Allerru | 0-1 |
| Almen Aretxabal.-Mutriku | 3-1 |
| Mondra-Zumaiako | 4-1 |

**EMAKUMEEN F-8 LIGA**

| | |
|---|---|
| Gasteiz Cup-Bergara | 7-0 |
| Almen Aretxabaleta-Antzuola | 7-0 |

**INFANTIL OHOREZKO MAILA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta Arizm.-Touring | 1-1 |

**INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)**

| | |
|---|---|
| Beti Ona-Bergara | 2-2 |
| Aloña Mendi-Amara Berri | 5-1 |

**INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Aitzgorri | 10-0 |

**INFANTIL TXIKI (KOPA)**

| | |
|---|---|
| Elgoibar-UDA Arizmendi | 1-0 |

**INFANTIL F-8**

| | |
|---|---|
| Ordizia-Antzuola | 3-3 |
| Bergara-Arizmendi B | 0-3 |
| Zumaiako-Aloña Mendi | 2-1 |

**BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)**

Sailkapena

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **La Salle** | **10** | 4 |
| 2. **Lasarte Oria** | **7** | 4 |
| 3. **Antzuola** | **7** | 3 |
| 4. **Urki** | **5** | 4 |
| 5. **Amaroz** | **4** | 3 |
| 6. **Zestoa** | **0** | 3 |
| 7. **Donibane** | **0** | 3 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| Zestoa-La Salle | 1-2 |
| Antzuola-Urki | 1-1 |
| Amaroz-Lasarte Oria | 1-1 |
| Donibane | ATSEDENA |

Hurrengoak

| | |
|---|---|
| Zestoa-Antzuola | |
| Urki-Amaroz | |
| Lasarte Oria-Donibane | |
| La Salle | ATSEDENA |

# Eskola kirola

**OÑATI**

## Hasierako partiduak atzeratu zirelako, ume askok bat egin zuten Zubikoan ordu berean

*Batzuk partiduak jokatzen ari ziren bitartean, besteak euren partiduak noiz hasi zain zeuden*

Jasone Zabala

Oñatin, eskola kirolak bederatzietan zuen ordua jarrita Zubikoako kiroldegian, baina pixka bat beranduago hasi zen.

Bertara, partiduak zituzten gaztetxoak hurbiltzen hasi ziren, eta eskubaloiko partiduak izan ziren jokatzen lehenak.

Gol eta saskiratze askoko partiduak ikusi ahal izan genituen, eta min hartutako bat edo beste ere izan zen tartean.

Neska gaztetxoen eskubaloi partiduan baloia eskuetan baino gehiago lurrean ibili zen, paseak ondo eman ezinik, baina izan ziren golak ere. Goiza aurrera joan ahala, gero eta gaztetxo gehiago hasi ziren hurbiltzen kiroldegira, eta atzerapena zeramatenez, gazte mordo bat bildu zen partidua noiz hasiko zain. Bitartean, Ibarran eta Olaiturrin gaztetxoak zebiltzan areto futbolean eta eskubaloian, hauek euripean aterperik ez dago eta.

Hamaikak aldera, ume nagusiagoek ere partiduak izan zituzten, eta lehiakortasun pixka bat ikusi zen.

**HEZITZAILEEN LAN ONA**

Eguerdi aldeko partiduetan, gaztetxoak ez ziren behar bezala portatu, eta elkar joka aritu ziren. Hezitzaileen errieta entzun ondoren, aurrera jarraitu zuten partiduek eguerdira arte.



AITOR LIZARRALDE

**Errekalde.** Iker, Joseba, Anartz, Ander M., Ander U., Josu eta Dani.



AITOR LIZARRALDE

**Fraileak.** Joseba, Iosu, Andoni, Mikel, Xabi, Andres (entrenatzailea), Unai, Julen, Jon, Mikel eta Iker.



AITOR LIZARRALDE

**Basakatuak.** Adan, Mikel, Aitor, Mikel, Ioritz, Martxel, Oihan, Beñat, Unai, Gorka, Gorka eta Julen.



AITOR LIZARRALDE

**Elkar Hezi 6B.** Mikel, Jagoba, Jon, Sergio, Gorka, Gaizka, Mikel eta Jokin.

### • HORRELA IKUSI DUTE PARTE-HARTZAILEEK



**JULEN, IÑIGO ETA XABI |**
ELKAR HEZI ETA URBIA

"Gehien gustatzen zaigun kirola futbola da. Ez da berdina, eskolara joateko jaikitzea astean zehar, edo zapatutan jaikitzea kirola egitera, pozik etortzen gara".



**ASIER ETA GORKA |**
ERREKALDE HERRI ESKOLA

"Futbola gustatzen zaigu gehien. Astean zehar ere entrenatu egiten dugu eskolan".



**CRISTIAN ETA JON |**
ERREKALDE HERRI ESKOLA

"Eskubaloia da gehien gustatzen zaigun kirola. Beste eskolatako lagun asko egiten ditugu".



**IKER |**
ERREK. HERRI ESKOLA

"Niri gehien futbola gustatzen zait. Zapatu goiza lo egiteko da, baina pozik nator".



**ANDER ETA JON ANDER |**
SAN MARTIN

"Guri gehien eskubaloia gustatzen zaigu. Oso gustura jaikitzen gara, nahiz eta zapatu goiza izan, eta asko gustatzen zaigun beste eskoletakoekin aritzea".

## IRUDITAN



AITOR LIZARRALDE

Baloiak ez zien hain erraz ihes egiten eskuetatik gaztetxoei.



AITOR LIZARRALDE

Partidua irabazteko estrategiak pentsatzen ari ote dira hauek?




AITOR LIZARRALDE

Baloia nori pasatu ez zekiela gelditu zen neska hau.




AITOR LIZARRALDE

Baloia hanka tartetik joan ote zaio?



• LEHEN NAZIONALA

# Azken minutuan lortutako garaipen garrantzitsua

*Minutu gehientsuenetan Trapagaran aurretik egon ostean irabazi zuten oñatiarrek*




AITOR LIZARRALDE

Gogor jokatu zuten atzealdean oñatiarrek eta hori asko nabaritu zen markagailuan.

ARRIKRUTZ
**25-24**
TRAPAGARAN

**Arrikrutz** | Biain, Galarza, Joseba (6), Pata, Zelaia (2), Jose Manuel (1), Rafael (1), Elgarresta, Gari (1), Perosterena (5), Fertxu (2), Zurutuza, Eneko (7) eta Korkostegi.

**Trapagaran** | Justo (1), Serrano (2), Martinez (1), Martin (5), Miguel Angel, Ricardo (1), Ortiz, Mendez (3), Baros, Urrestizbal (6), Silva, Acedo, Ortuondo (2) eta Portuondo (3).

**Golak:** 1-0; 2-2; 3-5; 5-6; 8-9; 12-11; 14-13; 16-15; 17-18; 19-21; 22-22; 25-24.

Ion Unamuno

Antza denez, Arrikrutzek gustuko du partiduak amaieran irabaztea. Aspaldi ez da garaipen lasai bat ikusi, baina berdin da. Egia esan, Arrikrutz Oñatiko Kobak dagoen egoeran ikusita, garaipenek zapore oso gozoa dute.

Oso gol gutxirekin hasi zen partidua. Lehenengo bost minutuetan gol bakarra egon zen. Partidu oreкatua izango zelako itxura zuen eta hala izan zen. Bi zatiak oso antzekoak izan ziren. Lehenengo minututan oñatiarrak aurreratzen ziren markagailuan. Ondoren, bizkaitarrak jartzen ziren aurretik markagailuan eta amaieran berriro ere Arrikrutz aurreratzen zen. Lehenengo zatian Eneko izan bazen etxeko protagonista (6 gol egin zituen lehen zatian), bigarrenean Unai Perosterena eta Joseba aipatu behar dira. Aurrealdean eurek eman zioten Arrikrutzi bizitasuna.

**DENON ARTEAN ATERAKO DA**

Lehenengo zatian, bat baino gehiago harrituta gelditu zen Zubikoan zegoen giroarekin. Kintoak kiroldegitik pasatu ziren eta euren abestiekin presio handia egin zuten. Horrelako zaleek taldea asko animatzen dute.

Aurrerapausu garrantzitsua eman zuten Txusen mutilek zapatuan, baina oraindik bide luzea dago egiteko. Kanpoan jokatzen diren partiduak zailak direla ez dago zalantzarik, baina hala ere, ezin dira galdutzat jo. Hori bai, Zubikoa gaztelu bihurtu behar da.

• LEHEN TERRITORIALA



AITOR LIZARRALDE

**AGR ARRASATE 27 - UROLA 25**

Arrasatekoak normalean ez dira ondo konpontzen Zumarragako taldearen aurrean, eta atzo ere ederki sufritu zuten garaipena lortzeko. Erasoan guztiz trabatuta ibili ziren, eta defentsan huts galantak egin zituzten. Horri Urko Arribalzaga epaileak egindako lan txarra gaineratu behar zaio. Hala ere, etxeko taldea, Urolakoa baino hobea zela erakutsiz, ia partidu osoan markagailuan gainetik joan zen azken minutuetara arte. Baina orduan ere, defentsa hobetuta eta Valle atezainaren gelditiuei esker buelta eman zioten markagailuari.

• GAZTE MAILA



AITOR LIZARRALDE

**GATZ MUSEOA JAKION 25 - HONDARRIBIA 22**

Egundoko partidua jokatu zuten Arrasateko gazteek atzo. Lehenengoen aurka jokatu zuten eta hondarribiarrak partidurik galdu gabe zetozen Arrasatera. Azken hamar minutuetan heldu zen etxekoen garaipena. Hiru puntu gutxiago zituzten etxekoek, baina defentsan eta erasoan egindako lan onari esker markagailuari buelta eman zioten. Aipatzekoa da defentsan egindako lana. Izan ere, kanpokoek 28 gol sartzen dituzte partiduko, eta atzokoan erabilitako defentsa aurreratuari esker eta atezainaren lanari esker, 22 bakarrik sartu zituzten.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

## Azken minutuetan galdu egin zuen Bergarak

MARIANISTAS
**31-29**
BERGARA

A.G.

Zapatuan gasteiztarrei egindako bisitan, gutxigatik izan bazen ere, ezin izan zuten garaipena lortu bergararrek.

Partidua ederki hasi zuten, bai erasoan eta baita defentsan ongi jokatuz, eta atsedenaldira 4 goletako abantailaz heldu ziren.

Bigarren zatian ere, bi taldeak berdinduta ibili ziren. Gasteiztarrek markagailuan berdintzea lortu zuten, eta azken minutuetan bi goletako errenta lortu zuten, eta Bergarak ezin izan zuen ezer egin.

### Emaitzak

MAILAZ MAILA

**LEHEN MAILAKO ESPAINIAKO LIGA**

| | |
|---|---|
| Arrikrutz Oñati-Trapagaran | 25-24 |

**SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Marianistas-Bergara | 31-29 |

**LEHEN TERRITORIALA**

| | |
|---|---|
| AGR Arrasate-Urola Agip | 27-25 |

**BIGARREN TERRITORIALA**

| | |
|---|---|
| Urola-Arrasate | 22-31 |
| Donibane-Aloña Mendi | 20-30 |
| Eibarko Haritza-Bergara | 23-28 |

**SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Sestao-Verkol Aloña | 15-18 |

**GAZTE MAILAKO MUTILAK**

| | |
|---|---|
| Gatz Museo Jak.-Hondarribia | 25-22 |

**GAZTE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Bera Bera-Verkol Aloña | 21-20 |

**GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Zahara Kafet.-Arrasate | 32-1 |
| Arrate Amaña-Bergara | 23-18 |

**KADETE MAILAKO MUTILAK**

| | |
|---|---|
| Zarautz-Aloña Mendi | 22-30 |
| Bergara-Usurbil | 16-23 |

**KADETE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Bera Bera-Verkol Aloña | 15-23 |

**INFANTIL MUTILAK**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Bidasoa Irun | 8-22 |
| Aloña Mendi-Pulpo | 24-29 |

**INFANTIL NESKAK**

| | |
|---|---|
| Elgoibar-Aloña Mendi | 6-26 |

● SENIOR MAILA

# Etxekoak bigarren zatian bikain

*Hasierako minutuetan talde donostiarrak etxekoei eutsi zien arren, hirugarren laurdenetik aurrera Bergara gehiago izan zen*

CANDY BERGARA
**85-67**
KOSTKAS

**Candy Bergara** | Murillo (14), Gonzalez (5), Mikel Morais (12), Arteaga (3), Blazquez (1), Beistegi (4), Ugarte, Alonso (5), Iñarra (8), Larrañaga (7) eta Eraña (22).

**Kostkas** | Loidi (5), Rejano (10), Fibrian (3), Etxebeste (8), Barral (4), Aizpurua (12), Sanchez (14), Olazabal (11) eta Polo.

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 27-21. Bigarren laurdena 16-12. Hirugarren laurdena 20-10. laugarren laurdena 24-22.

Jasone Zabala

Partidu entretenigarria ikusteko aukera izan genuen zapatuan Labegaraietan. Kostkas taldea zuten aurkari Bergarako mutilek. Kostkas talde beteranoa da, baina beraien maila ez da beste urte batzuetan izan dutena bezalakoa, eta hori nabaritu zen zapatuan.

Partidua berdinduta hasi zen. Donostiarrek pare bat hiruko sartu zituzten, baina joko aldetik etxekoak hobeto ari ziren jokatzen. Hasiera hasieratik jarri ziren aurretik bergararrak, eta horrela izan zen partidu guztian zehar. Lehen laurdena, 27-19ko emaitzaz amaitu zen.

Bigarren laurdenean, donostiarrak zonakako defentsan jarri ziren, aldaketak egiteko jokalari gutxi zeuzkatelako eta faltaz josita zeudelako.

Defentsa hau ere ederki apurtu zuen etxeko taldeak, eta laurden honetan, 15 puntuko abantaila lortu zuen, ordura arteko handiena.

Donostiarrek markagailuan pixka bat hurbiltzea lortu zuten eta bederatzi puntura jarri ziren, baina laurden hau ere, etxekoek abantailarekin amaitu zuten: 43-33.

**BIGARREN ZATIAN BIKAIN**

Etxekoek, bigarren zati honetan apurtu zuten markagailua. Donostiarren nekea nabaria zen ordurako, eta momentu horretan, markagailuko abantaila handitu nahian, presioa egiten hasi ziren etxekoak. Poliki-poliki abantaila gora joan zen, eta 20 puntutako aldea lortu zuten.

Partiduko azken txanpan, donostiarrek amore eman zuten, eta etxekoek aldiz, intentsitatea mantendu zuten amaiera arte. Kostkaseko jokalariek, bergararren jokoa gelditu nahirik, falta asko egin zituzten, eta partiduko azken bi minutuetan, lau jokalarirekin bakarrik geldítu ziren.

Hala eta guztiz ere, ez zuten etsi, eta gogoz jokatzen jarraitu zuten azken momentura arte.

Bergararren aldetik, puntu gehien sartu zuena Eraña izan zen; guztira 22 puntu sartu zituen, partidu bikaina eginez, eta taldeko guztiak bezala, erasoan eta defentsan bikain aritu zen.



AITOR LIZARRALDE

Erraz irabazi zuten partidua bergararrek.

● 2.MAILA NAZIONALA

## Azken minutuetara arte eskura izan zuten garaipena

COBAF
**58-43**
ESKORIATZA

A.G.

Eskoriatzarrek partidu garrantzitsua jokatu zuten pasa den zapatuan Calahorran. Zapatukoa kontuan hartuta, bi partidu gelditzen zitzaizkien eskoriatzarrei liga amaitzeko. Garaipena beharrezkoa zuten partidu honetan Fernando Rasoren neskek, talde errioxarra ere beraiekin batera jaitsiera fasera sartzeko muga-mugan dabilelako, bosgarren postuan, hain justu ere.

Etxeko taldea zonakako defentsan jarri zen hasieratik, eta eskoriatzarrek defentsa apurtu zuten saskiratzeekin hasieran; baina partidua aurrera joan ahala, batez ere bigarren eta hirugarren laurdenetan, erasoko erreboteak Calahorrakoentzat ziren, barruko jokalariak eskoriatzarrak baino altuagoak zirelako. Etxekoek markagailuan abantaila lortu zuten, baina Eskoriatza, hiruko lau saskiratzerekin, berriz ere partiduan sartu zen laugarren laurdenean, eta sei puntutara ipini zen. Epailearen zalantzazko erabaki batzuen ondorioz, garaipena Errioxan gelditu zen, ordea.

# Parekotasuna nagusi derbyan

ALOÑA MENDI
**36-42**
ESKORIATZA

**Aloña Mendi** | Valls (4), M. Ugarte (2), Losada, A. Ugarte (4), Bernal (2), Maestro (6), Telleria, Pico (12) eta Fernandez (6).

**Eskoriatza** | Prieto, Gonzalez (10), Akizu (4), Calderon, Marrodan (6), Ros (2), Caceres, Lage (6), Balanzategi, Balzategi (6) eta Garai (8).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 8-4. Bigarren laurdena 19-16. Hirugarren laurdena 32-32. Laugarren laurdena 36-42.

Jokin Etxebarria

Derbyetan berdintasuna nagusi izaten dela berriz ere agerian utzi zuten Oñatiko eta Eskoriatzako neska gazteek.

Berez, maila apur bat gehiago Eskoriatzakoek dutela esan behar da, baina zapatuan etxekoek nahiko partidu ona jokatu zuten, eta kanpokoek justu-justu eraman zuten garaipena.

Hasierako minutuetan etxekoak izan ziren nagusi, taula azpian batez ere. Eta abantailak handiegiak ez baziren ere, denbora guztian aurretik joatea lortu zuten. Aipatzekoa da oñatiarren aldetik Picok egindako lehen zatia. Puntuak sartzeaz gain, erreboteak jaso eta asistentzia asko banatu zituen.

**AZKEN BOST MINUTUAK**

Gutxika-gutxika, eta erritmo berean jarraituz, Eskoriatzakoek markagailuan gerturatzea lortu zuten, eta azken bost minututan defentsa sendotuta, kontraerasoan irteteko parada izan zuten; horrela irabazi zuten partidua azkenean.



JASONE ZABALA

Taula azpian nagusitu arren ezin izan zuten etxekoek irabazi.

## Emaitzak

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHEN MAILA** | |
| Mugarri Alkesa | Atsedena |
| **SENIOR MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA** | |
| Irun basket-Aloña Mendi | 78-92 |
| Candy B.K.E.-Kostkas | 85-67 |
| **GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA** | |
| Mugarri Alkesa-Ordizia | 61-69 |
| Loyola-Aloña Mendi | 90-41 |
| Gros Xake-Araneta | 71-67 |
| **KADETE MAILA** | |
| Internacional-Lacor | 71-65 |
| Zarautz-Aloña Mendi | 48-59 |
| At. S.S-Mugarri Alkesa | 61-41 |
| **NESKEN BIGARREN MAILA** | |
| COBAF-Eskoriatza | 58-43 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Aloña Mendi-Eskoriatza | 36-42 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Bergara-Carnicas S. Marcial | 29-27 |
| Eskoriatza-Ipar Project | 21-55 |

## Errugbia

• LEHEN MAILA

# Maila mantentzeko pauso erraldoia 12-0 irabazita

*Hurrengo astean Zarautzek galdu egin behar du mailari eusteko*

Jokin Etxebarria

Derrigor irabazi behar zuten arrasatearrek zapatuan mailari eutsi ahal izateko, eta baita egin ere. Hala ere, ez dago guztiz ziurtatuta mailari eustea. Izan ere, azken partidua gelditzen da denboraldia amaitzeko, eta zarauztarrek Bilbon irabazten badute, Arrasatearrek Gernikan derrigorrean irabazi beharko dute, eta hori ez da batere lan erraza.


AITOR LIZARRALDE
Bigarren zati osoa etxekoen zelaian bakarrik jokatu zen.

**PUNTUAK LEHEN ZATIAN**

Kanpokoek, lehen minutuetan markagailuan aurreratzeko aukera izan arren, ez zuten punturik lortu eta etxekoek, euren bi eraso luzeetan lortutako entseguen bitartez, abantaila polita lortu zuten. Kanpokoak ezinean ibili ziren lehen zatian. Baina bigarrenean gora etorri ziren. Izan ere, 12-0 galtzen zihoazen eta entseguak lortu behar zituzten. Hala ere, arrasatearren zelaian bigarren zati guztia jokatu arren, ez zuten tantorik lortu, etxekoen defentsako lana bikaina izan zen eta.

## Pertika jauzia

# Espainiako txapelketarako sailkatu da Jonathan Perez arrasatearra

Asteleheneko Goienkaria



Pozik dago Jonathan Perez pertika jauzilari arrasatearra. Asko kostata izan bada ere, azkenean, asteburu honetan lortu du Espainiako txapelketarako sailkatzea, 4'95 metro salto egin ondoren. Euskadiko federazioari beste proba bat eskatu eta gero, Euskadiko gazte txapelketan parte hartzeko baimena eman zioten, eta bertan lortu du sailkapena. Aipatzekoa da, txapelketa honetan, Lander Errasti arrasatearra Euskadiko Txapeldun atera zela gazteen mailan.

## Labur

### Isa Casado lehena eta Leire Ezpeleta bigarrena Formigalen

Mendi eskiko Euskadiko kopako bigarren jardunaldia jokatu zen atzo goizean Formigalen. Han, arrasatearrak bikain ibili ziren. Izan ere, Isa Casadok euskaldunetan lehena bukatu zuen eta bigarrena, berriz, Leire Ezpeleta izan zen. Mutiletan, Aitor Otxoa eta Arkaitz Letamendi oñatiarrak lehen hamarren artean sartu ziren.

## Arku-tiroa

# Bizkaitarrak bi modalitatetan izan ziren nagusi, eta hirugarrenean gipuzkoar bat

Jasone Zabala

Atzo jokatu zuten Oñatin, Zubikoa kiroldegian, Txantxiku arkulari taldeak antolatuta, Salako VII. ligari zegokion bosgarren jardunaldia.

10 taldetako 35 bat arkulari bildu ziren, gehienak Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak: Arrasatekoak, Oñatikoak, Zornotzakoak, Bermeokoak eta Durangokoak, besteak beste. Aipatu behar da emakume bat ere aritu zela arkuarekin, baina txapelketatik kanpo. Erakustaldia baino ez zuen egin.

Hiru kategoriatan banatu zuten txapelketa: poleadun arkuak, arku olinpikoak eta hastapen arkuak. Senezko arkuan ez zen txapelketarik egin, jende gutxi zegoelako.

**AZKEN BI JARDUNALDIAK**

Liga amaitzeko bi jardunaldi gelditzen dira: bat, otsailaren 27an izango da Zornotzan, eta azken jardunaldia, finala, alegia, Etxebarrin izango da.

### Sailkapena

**HASTAPEN ARKUAK**
1. Francisco Javier Perez (Etxebarri)

**ARKU OLINPIKOAK**
1. Alberto Murcia (Eibar)

**POLEADUN ARKUAK**
1. Pablo Roman (Durango)


AITOR LIZARRALDE
Jende askok hartu zuen parte atzokoan Oñatin.


ARRASATE: Antso Abarka 6
943 79 59 81. F: 943 79 39 18


BERGARA: Zurradero 2
943 76 97 65. F: 943 76 40 37

GOIENA ASEGURUAK S.L.
Gu gara zure aukera.
www.goienaaseguruak.com
VITALICIO DKV Santander Central Hispano MAPFRE AXA OCASO CATALANA OCCIDENTE ING NATIONALE-NEDERLANDEN Banesto

Alvaro Arregi 59 urteko arrasatearra da. Besaide Mendi Elkartean urteak daramatza eta Arrasateko alkate izandako honek, duela ia bi urte erabaki zuen Euskal Mendizale Federazioko lehendakaritzara aurkeztea. Zapatu honetan izan dira hauteskundeak, eta berak lehendakari irtetea lortu ez badu ere, ezin daiteke esan pozik ez dagoenik. Izan ere, bere ustetan Arantza Jausoro lehendakari berriak lan ona egingo du. Gainera, berari eta bere taldeari laguntzeko prest azaldu da.

**ALVARO ARREGI** | BESAIDE MENDI TALDEKO KIDEA

# "Arantza Jausororen eta nire programa antzekoak izan dira"

Jokin Etxebarria

**Nolatan otu zitzaizun Euskal Mendizale Federazioko lehendakaritzara aurkeztea?**

Duela lau urte Gipuzkoako Mendi Federaziora aurkeztu ginen federazio hau desagertzear zegoelako. Juan Pedro Iturbe arrasateatarra izan da denbora horretan presidente, eta Diputazioari planteatu genion Gipuzkoako mendizaletasunari buruzko etorkizuneko azterlan bat egitea. Azken bi urte eta erdian horrekin ibili gara. Duela ia bi urte konturatu ginen, Euskal Mendizale Federazioak premia zuela beste antolakuntza izateko, eta momentua heltzen zenean kandidatura aurkeztea pentsatu genuen.

**Etorkizunerako azterlan bat egin duzuela esan duzu. Zertan datza azterlan horrek?**

Momentuz, azterlanak azterlan bakarrik dira. Orain, bertan atera diren ondorioak aurrera ateratzeko, elkarteen artean hausnarketa bat egin beharko da.

Azterlan honen bitartez, Alpeetako herri batzuetan, Valentzia aldean, Pirinioetan eta nola ez Nafarroan eta EAEn dagoen errealitatea aztertu nahi izan dugu, eta bertatik ondorio batzuk atera ditugu.

**Zergatik uste duzu ez duela aurrera egin zure kandidaturak?**

Bizkaia eta Gipuzkoako errepresentazio handia egon da, eta bertatik etorri diren gehienak, beste kandidaturak ondo landutakoak izan dira. Botoa batzeko oso lan pertsonala egin dute, eta horrek hauteskunde batzuetan asko balio du. Edozein modutan balorazioa datorren astean egingo dugu; hotzean, gerora begira zer komeni den jakiteko.

**Agian zure programa ez zen erakargarriena?**

Nire ustez, programak oso antzekoak izan dira. Lan pertsonalak asko eragin du.

**Nola ikusten duzu Arantza Jausoro karguan?**

Nik oso ondo ikusi dut. Bere proiektuaren defentsa ona egin du eta esaten dutena egiten badute, datorren lau urteak azken urteak baino askoz ere emankorragoak izango dira.

**Eta hemendik lau urtera berriz aurkezteko intentzioz?**

Hemendik lau urtera zer gertatuko den inork ezin dezake jakin. Hala ere, ikusten badugu oraingoak lanean ondo dabiltzala gure laguntza guztia edukiko dute dudarik gabe.

**Nola ikusten duzu euskal mendizaletasunaren osasuna?**

Euskal mendizaletasuna osasuntsu dago, dudarik gabe. Federatu mailan, kontuan hartu behar da, ez dagoela Europan, Austria alde batera utzita, horrenbeste federatu dituen herrialde bat. Hala ere, nik uste, jende gehiago federatu beharko litzatekeela. Izan ere, asko eta asko daude, mendira irteten direnak inongo segururik izan gabe, eta federatuta hori lortuko litzateke. Gaur egun kalkulatzen da, gurean, mendira irteten diren hirutik bakarra dagoela federatua.

Hori guztia kuantitatiboki eta kualitatiboki ikusten hasten bagara, ez dago dudarik eman dugun aurrerapausuaz. Orain dela 30 urte ez ginen bat ere ezagunak. Gaur egun, zortzi milakoak igotzerakoan lehenengo mailan gaude, kirol eskaladan berdin, eta mendiko lasterketetan, nahiz eta oraindik nahiko hasiberriak garen, izan den bilakaera ikaragarria da.

**Arantza Jausorok, Euskal mendizaletasunaren egoera *hazkunde krisia* bezala definitu du. Zer deritzozu horri?**

Hori bere iritzia da. Zuzendaritza mailan jende falta dagoela jakina da. Baina hori, hemen, Italian, Frantzian eta leku guztietan gertatzen da. Gainera, hori ez da oraingo arazoa. Orain dela 35 urte, Besaide Mendi taldeko presidente izan nintzenean, talde hau ia desagertu egin zen.

Horregatik, gaur egun, Gipuzkoako Federazioak eta Diputazioak nolabaiteko pizgarri bat eman nahi diote atal honi. Beste gauza batzuen artean Unibertsitateko ikasleei kredituak ematea, halako ekintzetan parte hartzen badute.




JULEN IRIONDO

Alvaro Arregik ez du lortu Euskal Mendizale Federazioko Lehendakari izatea.

**Zure ustez, kirolaririk eta lehiaketarik gabe, Euskal Mendizale federazioa desagertu egingo litzateke?**

Ez, ez dut uste. Baina horrek ez du esan nahi niri gaizki iruditzen zaidanik lasterketak egitea. Ikusi da, gainera, sekulako laguntza duela horrek. Gainera, mundu mailan korrikalariak lehen postuetan ditugu, eta hauei laguntza eman behar zaie. Hala ere, urteetan ez da egon horrelako lasterketarik, eta hala ere, Euskal Mendizale federazioa ez da desagertu. Gainera, gehien praktikatzen den mendizaletasuna betikoa da, klasikoa.

**Zein da igo duzun mendirik garaiena? Eta zein menditan sentitzen zara gusturen?**

Mont Blanc izan da garaiena, eta gure mendiak kenduta, Pirinioetan sentitzen naiz gusturen.

**"Botoa batzeko lan pertsonala egin dute, eta horrek hauteskundeetan asko balio du"**

**"Ikusten badugu lanean ondo dabiltzala, gure laguntza osoa izango dute"**

## Arantza Jausoro hurrengo lau urteetarako lehendakari

**Zapatuan egin ziren Euskal Mendizale Federazioko lehendakaritzarako hauteskundeak Elgetan. Eta bertan Arantza Jausoro hautagaia irten zen lehendakari, botazioetan Alvaro Arregi arrasatearrari 118-54 irabazita. Hautagai bakoitzak bere lana zein izango den aurkezteko aukera izan zuen, eta Gasteiz Mendi Taldekoak ederki konbentzitu zituen bertaratutakoak. Arraroa badirudi ere, Bizkaitik eta Gipuzkoatik jaso zituen boto gehien.**



# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

• Itziar Ituño aktoreak *Pakitarentzat bakarrik* antzezlana egin zuen zapatuan, Antzuolan | 24
• Egubakoitzean 300 euro batu zituzten Kilometroen alde Espaloian izandako kontzertuan | 25

Juan Martin Elexpuruk aurkeztu du Bergara aldeko lexikoa batzen duen hiztegia | 24

EUSKAL MUSEO TXIKIA



AITOR LIZARRALDE

Erakusketan hainbat liburu eta dokumentu batu ditu Lorentxok eta irakurketa txokoa ere antolatu du.

**ETXALUZE BASERRIA** | SAN ANDRES AUZOKO BASERRIAN OSATU DU LORENTXO ALTUBEK ERAKUSKETA

# Eskuz egindako musika tresnak altxor bihurtu dira Etxaluze baserrian

*Perkusio, soka eta haizezko euskal musika tresna tradizionalak eta baserriko lanabesak erakusten jarraitu nahi du Lorentxo Altubek. Horretarako laguntza ere nahiko luke*

Marijo Deogracias

Dozena bat urte dira Lorentxo Altube berak egindako musika tresnak erakusten hasi zela. Baserriko lanabesen erakusketa geroago osatu zuen Etxaluze baserrian, Arrasaten. Harrezkero asko izan dira bertara hurbildu direnak, baserrian eta inguruetan batutako lanabesak ikusteko eta Lorentxok eskuz egindako musika tresnak ezagutzeko.

**TXALAPARTA LEHENENGOA**

Musika tresnak egiten noiz hasi zen galdetuta, emazteak eta semeak txalaparta jotzen zutelako hasi zela kontatuko dizu Lorentxok. "Eskolak ematen zituzten eta txalaparta nahikorik ez zutenez, oholak eskuratu eta makilak egiten hasi nintzen. Gero etorri ziren albokak, adarrak, xaramelak, txanbelak eta harpak". Izan ere, horiek guztiak ditu erakusgai bere erakusketan; guzti-guztiak berak eginikoak dira eta sasoi baten Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban zehar erakutsi zituenak. "Liburuetan asko ikusi eta ikasi behar izan nuen musika tresnak egiteko, baina lan gehiago eman zidan materiala lortzeak. Adarren bila hiltegi batetik bestera ibili nintzen, batek Bilbokotik ekarri zizkidan arte; txalaparta-oholen bila ere hainbat zapatu-domeketan mendi bueltak egin behar izan nituen; eta harpak egiteko, esaterako, musika eskoletara jotzen nuen hangoak ikusteko", gogoratu du Lorentxok Etxaluzera bisita egin diogunean.

Harro egoteko moduko bilduma osatu du Lorentxok eta harro azaltzen du musika tresna bakoitza egiten izan zituen zailtasunak. Baina ez dira bakarrik berak eginikoak Etxaluzen batu dituenak. Bere bilobatxo baten margolana ere eskegi zuen hormatik lehenengo eta herenegun beste biloba baten margolana: "Arrasateko Aratusteak iragartzeko lehiaketa batera aurkeztutako lan irabazlea" esan digu Lorentxok. Lekurik apenas geratzen zaio Etxaluzeko beheko solairuan, baina dagoena erakusten jarraitu nahiko luke berak. "1993tik 1996ra 50.000 ume pasatu ziren erakusketa ibiltarietatik; gaur egun etxera etortzen zaizkit asko, baina ez dut bisita ordu zehatzik. Modu antolatu batean egitea nahi nuke eta horretarako laguntza lortu".

> "Txalaparta-oholen bila zapatu-domeka askotan mendira joten nuen"
>
> "1993tik 1996ra 50.000 umek ikusi zuten erakusketa ibiltaria"

EUSKAL MUSEO TXIKIA

**LORENTXO ALTUBE** | ETXALUZE BASERRIKO ERAKUSKETAREN SORTZAILEA

# "Laguntasuna izan gura nuke erakusketa bultzatzeko"

M.D.

**Arrasateko San Andres auzoan dauka erakusketa Lorentxok, Etxaluze baserrian. Duela urte dezente hasi zen baserrian aurkitutako lanabesak batzen eta musika tresnak egiten. Horiekin guztiekin osatu zuen Etxaluzeko erakusketa, euskal museo txikia deitu genezakeena.**



AITOR LIZARRALDE

**Baserritarra, artisaua, maisua… Zer da Lorentxo Altube?**

Artisaua bai, nik egin ditudalako erakusketan dauden musika tresna guztiak, baita baserri bizimodua erakusten duten hainbat elementu ere; zaharberritzaile ere banaiz, erakusketan ditudan elementu asko berritu behar izan ditudalako; eta maixu? Hori ere izango naiz hein batean; ikasleei azalpenak ematen aritzen naiz datozenean, eta lehen egin nituen erakusketa ibiltarietan azalpenak emateko ere, asko ikasitakoa naiz.

**Nondik nora erabaki zenuen horrelako erakusketa atontzea etxean?**

Musika tresnak egiten hasi nintzen eta hainbeste nituenez, erakusketa ibiltariak egitea eskaini zidaten. Arrasaten egin nuen lehenengoa, 1993an, eta hamabi urtez aritu nintzen horretan.

Gero etxean topatzen joan nintzen baserriko lanabesak batu nituen, eta haiekin eta musika tresnekin osatu nuen erakusketa. Berrehunetik gora elementu daude ikusgai.

**Baserriko bizimodua nolakoa zen erakusteko tresnak dira.**

Uztarria, kardak, maratila… daude, baina baita arotz taula, harrobietako lanabesak, harrizulatzaileenak, eraikuntzan erabiltzen zirenak, burdinolan erabiltzen zirenak, mazukerian… Ez dira beraz, baserriko lanabesak bakar-bakarrik.

**Txalaparta izan ei zen egin zenuen lehenengo musika tresna.**

Bai, baina harrezkero xaramelak, txanbelak, harpak (Iparraldean maniura deitzen dena), ttun-ttunak, albokak eta adarrak ere egin ditut. Liburuetatik atera izan dut haiek egiteko informazioa, baina musika eskoletan ere ibili nintzen eta Eskola Politeknikora ere jo nuen txalapartaren doinua neurtzeko eta frekuentzia, bibrazio eta bestelakoen mapa egiteko.

**Hau guztia mantentzeko ere laguntasuna beharko duzu.**

Gurako nuke. Alde batetik, nahiko nuke euskalgintzan ari den talderen bat hona etorri eta erakusgai dauden tresna guztien izen-zerrenda osatzea; askok eta askok ez dute jakiten zertarako erabiltzen ziren hemen batutakoak, eta oso lagungarria litzateke hori. Bestetik, gustatuko litzaidake erakusketak antolatuta egitea eta horretarako Udalaren laguntza izatea: esku-orriak atera, bisitak ordu jakinetan antolatu…

Hemen dagoena aprobetxatzea nahi nuke.

"Berrehunetik gora musika tresna eta baserriko lanabes daude ikusgai"

"Euskalgintzan ari den norbaitek tresnen izen-zerrenda osatzea gurako nuke"

## Etxaluze baserriko ateak zabalik nahi duenarendako

**Sasoi baten erakusketa ibiltaria zena, osatu egin zuen Lorentxo Altubek eta duela urte batzuk etxean eratu zuen euskal museo txiki legez definitu genezakeena: berak egindako musika tresnak eta baserrian topatu dituen baserriko tresnak eta beste hainbat ofiziotako lanabesak dira. Berrehunetik gora pieza daude ikusgai Etxaluze baserrian, Arrasateko San Andres auzoan.**

**Ateak zabalik izaten ditu barruan duena eta baserri inguruan eratu duen erakusketatxoa bisitatu nahi duenarendako. Sasoi baten ikastetxeetatik antolatutako bisitak izaten zituen; gaur egun, gutxiago diren arren, badira oraindik Arrasateko ikastetxeetatik joaten zaizkion ikasle taldeak. Hala ere, berak nahiko lukeena litzateke erakusketa horiek modu antolatuan egitea eta horretan erakunderen bat inplikatzea: "lehen Arrasateko Udalarekin elkarlanean antolatu genituen erakusketak. Ekimen hori berreskuratzeko asmoa egon badago, beraz, ia animatzen diren".**

**Erakusketa ikustera joan nahi duzuenak, San Andres auzoko Etxaluze baserritik pasatu eta Lorentxok hartuko zaituzte.**

# Hogeita bost zuhaitzen txalaparta-oholak daude ikusgai Etxaluzen

*Txalaparta gustuko dutenendako leku aproposa da erakusketa*

M.D.

Etxaluze baserriko erakusketak bi zati ditu; sarreratik gertu baserria eta bere inguruko ofizioen lanabesak ikusten dira; aurrerago, berriz, eskuz landutako musika tresnak batu ditu Lorentxo Altubek.

**NAHI BESTE AZALPEN**

Altubek musika tresnen izenak zehaztu ditu erakusketan, baina lanabesak jardun bakoitzaren arabera sailkatu ditu, eta beharrezko diren azalpen guztiak berak ematen ditu; izena, zertarako erabiltzen zen, nondik atera duen…



AITOR LIZARRALDE

**TXALAPARTA.** Xilofonoa ere badauka Etxaluze baserrian, eta hiru oholetako txalaparta ere bai, baina Lorentxok dioenez, "txalapartak bi ohol baino ez ditu eta hori erakusten saiatzen naiz". Hogeita bost txalaparta-ohol batu ditu eta makilak ere hamaika ditu, bakoitza bere izenarekin.



AITOR LIZARRALDE

**IZOZKIA EGITEKO MAKINA.** Baserrian bertan topatu dituenak batu izan ditu Etxaluzeko erakusketan; tartean irudian agertzen den izozkia egiteko gailua. "3-4 ordu behar izaten zen makina honekin izozkia egiteko; izotza alde batean sartu eta eragin egin behar izaten zen, barrukoa izoztu artean".



AITOR LIZARRALDE

**ASTOARENDAKO LOKARRIA.** Landutako larruzko lokarri dotore hau ere ikusi daiteke hormatariko batetik eskegita. Astoa sorora ateratzen zenean gurdiari tira egin ziezaion lepotik jartzen ei zioten larruzko lokarria astoari. Uztarria ere badauka horma berean Lorentxok, beste gauza batzuen artean.



AITOR LIZARRALDE

ANTZERKIA OÑATIN | **NI, ARRATOI**

Oñatiko Errekalde Herri Eskolak antolatuta 190 lagun elkartu ziren zapatu iluntzean *Ni, arratoi* haur antzerkia ikustera. Behi Bis taldeko txotxongiloek Kuki txakurra eta kaleko arratoi baten arteko adiskidetasun istorioa kontatu zuten Santa Anan. Arratoia kalean bizi da. Hotza eta gosea izaten du maiz, baina aske bizi da. Kuki txakurra, berriz, bere nagusi Amatxitorekin lasai bizi da nagusia bera jipoitzen hasten den arte. Arratoi bihurriaren aldrebeskeriek, gainera, arazoak ekarriko dizkio Kuki txakurrari etxetik ihes egitea erabakitzen duen arte. Gustura egon ziren haurrak. Datorren asterako, Errekalde Herri Eskolak dantza ikuskizuna prestatu du Zubikoa kiroldegian. Zapatuan, 19:00etan, Kresala dantza taldearen emanaldia izango da | L.Z.



AITOR LIZARRALDE

ANTZERKIA | **PAKITARENTZAT BAKARRIK**

Ikusle gutxirekin, baina epelean aritu zen Itziar Ituño aktorea joan zen zapatuan Antzuolan.

Txalo antzerki taldeko aktoreak *Pakitarentzat bakarrik* antzezlana aurkeztu zuen hogeita bost bat ikusleren aurrean. Umeentzako antzerki saioa izan zen *Pakitarentzat bakarrik*, Txalo antzerki taldeak egin ohi dituen lanen haritik sortutako bakarrizketa. Olaran etxera jende gutxi batu zen arren, gustura geratu ziren ikusleak. | A.G.




AITOR LIZARRALDE

Miren Azkarate, Viktoriano Gallastegi, Juan Martin Elexpuru eta Jaione Isazelaia liburuaren aurkezpenean.

**LIBURU AURKEZPENA** | 'BERGARA ALDEKO HIZTEGIA'

# Elexpuru: "Ia ez dut sinisten, baina amaitu dut"

*Bergarako Udalaren laguntzarekin amaitutzat eman du urte luzez egindako lana*

Marijo Deogracias

*Bergara aldeko hiztegia. Leintz, Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta*ko hiztegi "mardula" aurkeztu zuen Juan Martin Elexpuruk joan zen egubakoitzean, jendez betetako Bergarako osoko bilkuren aretoan. Alboan izan zituen Miren Azkarate Kultura sailburu eta euskaltzaina, Bergarako alkate Viktoriano Gallastegi eta Jaione Isazelaia, lanaren irudi-arduraduna.

Elexpuruk aitortu zuenez, "ia ez dut sinisten amaitu dudanik. Oraindik gogoan daukat zelan batek galdetzen zidan *zela joiak hori?* eta nik zelan esaten nion *bajoiak, bajoiak*".

Eta egina dago, aurkeztua eta salgai, 30 eurotan, 12.000 sarrera dituen hiztegia.

Miren Azkarate Kultura sailburu eta euskaltzainak adierazi zuenez, "Euskaltzaindiarentzat ere lan oso garrantzitsua da hau, aurrerantzean bestelako ikerketa lanak egiteko balioko duelako; eta horrelako lan gehiago egingo balira oso lagungarriak izango litzaizkioke Euskaltzaindiari".

Jaione Isazelaiak azaldu zuen "hiztegia arintzeko" argazkiak eta marrazkiak erabili dituztela. Bergarako Udalari eskerrak eman nahi izan zizkion Elexpuruk lana egiteko jasotako laguntzagatik.

> Euskaltzale asko elkartu zen Elexpururen lanaren aurkezpenean
>
> 'Bergara aldeko hiztegia'-k 12.000 sarrera ditu. 30 eurotan dago salgai

**EUSKALTZALE ASKO**

Politikoez gainera, Gerardo Elortza idazlea, Joxemari Muxika Topaguneko lehendakaria, Alberto Telleria *Berbeta berua* liburuaren egilea, Serafin Basauri *Eibarko Hiztegi Etnografikoaren* egilea eta beste hainbat lagunek egon nahi izan zuten hainbeste urtez lanean jardun ostean Elexpuruk amaitutzat eman duen hiztegiaren aurkezpenean.

30 eurotan salgai dago, dagoeneko, ibarreko liburu dendetan, *Bergara aldeko hiztegia*.



Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA
Telleria 23, D5 pabilioia.
**Labegaraieta Industrialdea BERGARA.**
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.



# Rock akustikoa, hardcorea eta heavy rocka Kilometroen aldeko Danbaka biraren emanaldian

*300 euro batu ziren Kilometroen aldeko kontzertuan. Hiru talde aritu ziren eta oso estilo ezberdineko saioak eskaini zituzten*

**Non.** Elgetako Espaloia antzokian.
**Zenbat jende.** 150 lagun inguru.
**Iraupena.** Bi ordu eta erdi.

Larraitz Zeberio

Azkaiter Pelox, Lukas Prest eta Dolce Vita Elgetako Espaloia Kafe antzokian izan ziren egubakoitz gauean. Kilometroen aldeko kontzertua izan zen eta 300 euro batu ziren datorren urriaren 2an Leintz bailaran egingo den Gipuzkoako ikastolen festarako.

Talde bakoitzak 45 minutuko emanaldia egin zuen. Hirurak Danbaka lehiaketatik kanpo gelditutako taldeak ziren, baina Danbaka Bira dela-eta eszenatoki berean eta telebistako kamerak aurrean zituztela jo zuten.

**ILEORDEAK ETA LUMADUN LEPOKOAK**

Azkaiter Pelox bergararra izan zen lehenengoa eszenatokira igotzen. Bere betiko ileorde zuriarekin atera zen jendaurrera eta oso bere estiloko emanaldia eman zuen. Bere kantuak hainbat bertsiorekin tartekatu zituen kontzertuan. Azkaiter Pelox ez da geldirik egoten den gizona eta gora eta behera ibili zen Espaloian. Ziur asko GOITBko kameralariek lanak izango zituzten bere emanaldia behar den moduan grabatzeko.

Azkaiter Peloxen ileordea ez zen inorentzat inongo ezustea izan; bai, ordea, Lukas Prest taldeko abeslariaren mozorroa. Eskoriatzako laukoteak hardcore indartsua eskaini zuen Elgetan. Bi kantu euskal presoen omenez jo zituzten eta Loquillo ere gogoan izan zuten euren emanaldian. Abeslaria Europako Itunaren alde azaltzea gaitzetsi egin zuen eskoriatzarrek.




AITOR LIZARRALDE

Eskoriatzako Lukas Prest taldeko laukotea indartsu aritu zen Espaloiko emanaldian.

Euren emanaldia bukatzeko, azkenik, Mexikoko ranchera bat jo zuten tronpeta eta guzti. *Volver, volver* kantuarekin itxi zuten euren emanaldia.

Azken saioa Arrasateko Dolce Vita taldearena izan zen. Heavy rocka egiten du laukote honek. Bi kantu instrumentalekin eman zioten hasiera emanaldiari. *Montdragon* kantua entzuteko aukera izan genuen eta baita publikoak eskatutako *A fuerza de rock* abestia ere. Heavy estiloari eskainitako kantua izan zen gainera.

arrasate Herri Eskola

arrasate INSTITUTUA

ARRASATE HERRI ESKOLA
2-12 urte bitartekoentzat

ARRASATE BHI
12-21 urte bitartekoentzat

2005-2006 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK:
Otsailaren 14tik 25era arte

INFORMAZIO BILERA:
BEDOÑABEN
(SAN ANDRES AUZOAN),
OTSAILAREN 15ean,
18:00etan.

Telefonoa: 943 79 77 74 – 943 79 20 69
e-posta: arrasateesk@goieskola.net
012127aa@hezkuntza.net
Ordutegia: 09:00etatik 18:00etara.

– Integratzailea: euskal kultura garatzen dugu, eta beste kulturak era egokian geureganatu eta garatzen ditugu. Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
– Sortzailea eta autonomoa.
– Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.

INFORMAZIO BILERA:
MUSAKOLAKO INSTITUTUAN,
BEHEKO ERAIKINEAN,
OTSAILAREN 21EAN,
18:00ETAN.

ARAMAIOKO SAN MARTIN ESKOLAN
OTSAILAREN 22AN 18:00ETAN

Telefonoa: 943 79 44 47
e-posta:iarrasate@euskalnet.net
Ordutegia: 09:00etatik 17:00etara

GOIESKOLA
Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

Gaur bertan, gaueko 21:00etan itxiko ditu ateak Arte Garaikidearen ARCO nazioarteko erakusketak, Madrilen. Gure elkarrizketatuak eguena eta egubakoitza eman zituen 24. aldiz egiten den erakusketan, Madrilen bere lanak erakusten, eta beste hainbeste artisten lanak ikusten. Hogeita hamahiru herrialdetako artistek erakutsi dituzte euren artelanak ARCOn. Lazkano margolari bergarararrak 2 m luze eta 3 m zabal den margolana eta 6 koadro txiki erakutsi ditu.

**JESUS MARI LAZKANO** | MARGOLARIA ETA ARTE EDERRETAKO IRAKASLEA EHU-N

# "ARCO ez da artearen egoera errealaren irudi onena"



ARTXIBOA

Jesus Mari Lazkano margolari bergarararrak Antonio Machon galeriarekin erakutsi ditu bere lanak ARCOn.

Marijo Deogracias

**Ia urtero joaten zara ARCO erakusketara eta aurten ere ez duzu kale egin. Zer erakutsi duzu han?**

Antonio Machon galeriarekin erakutsi ditut ARCOrako egin ditudan margolanak. Arkitektura modernoaren barrutik kanporako ikuspegia lantzen ari naiz, eta eraikin arkitektonikoak agertzen dira barruan, eta kanpoaldean hiria. Leku errealak izan ez arren, leku ezagunen itxura hartzen dute. Bi metro luze eta hiru metro zabal dituen margolana eraman dut eta serie bateko beste 6 koadro txikiago; Alvar Aalto arkitektoaren Savoy serieko beirazko baso ezagunean oinarritutako lanak.

**Zer iruditu zaizu 2005eko ARCO?**

ARCOk badu bere baitan halako kontraesan bat. Alde batetik, bertara doanak uste du ARCOra joan ezean arteaz ezer ez dakiela, baina ez da hain beharrezkoa ARCOra joatea. Azken batean, serie komertziala da, han egoteko galeriek ordaindu egiten dute eta saldu egin behar izaten dute, eta badakite zer nolako lanak saltzen diren.

Erakusketak badu bere alde tradizionala eta baita proposamen berriena ere: arraroenak, histrionikoenak… hedabideetan ateratzen diren horiek dira. Horiek ARCOri mundu ulertezinaren itxura ematen diote. Hala ere, margolanak, argazkiak eta eskulturak dira erakusketan dauden gehienak eta ez dira hain arraroak. Hedabideetan ematen den ARCOren irudia faltsua dela esan daiteke. Egon badago ARCOra urtero joaten den jendea, baina jende hori urtean zehar bestelako erakusketarik bisitatzera ez da joaten. Eta horrela oso zaila izaten da ARCOn dauden proposamenak ulertzea. ARCO ez da museo batera joatea bezala. Museo batean erakusketa oso antolatuta dago eta artelanen eboluzioa azaltzen duen ibilbidea egiten duzu; ikasi egiten duzu. ARCOn, ordea, dena nahasturik dago, gauza arraroak, berriak, zaharrak, argazkiak, eskulturak… Guztiak daude nahastuta eta hortik zerbait garbia ateratzea oso zaila da, ez gaude horretarako entrenatuta. Beraz, ateratzen duzun ondorioa da hura *kristo* bat dela.

**Orduan ARCO ez da artera gerturatzeko modurik egokiena.**

Argi eta garbi esan duzu eta horrela da, ARCO ez da artea ulertzeko modurik onena. Artea ulertzeko urtean zehar hainbat lan ikusi behar dira, poliki-poliki egin behar den lana da, norberak bere gustuak antolatzeko eta horrekin guztiarekin joan behar duzu ARCO lako erakusketa batera.

**Zertarako egiten dira ARCO moduko erakusketak?**

Bildumak bultzatzeko balio du. Galeria bakoitzak bere erritmoa dauka, baina bultzada bat behar izaten dute, animo kolektiboa behar dute, eta aitzaki horrekin elkartzen dira arte-galeriak ARCOn; hortaz, momentu ederra izaten da galeria bakoitzak bere artistak erakusteko. Alde horretatik galeriendako une ona da, jende asko mugitzen delako eta erostera doan erakunde asko batzen delako han.

> "Arkitektura modernoaren barrutik kanporako ikuspegia lantzen ari naiz"

> "Hedabideetan ematen den ARCOren irudia faltsua dela esan daiteke"

Artistendako elkartzeko aitzakia da ARCO. Gure berri elkarri emateko eta informazioa elkarri trukatzeko aproposa da.

**Saldu egiten da ARCOn?**

Bai, agian aurten iaz baino gutxiago, galeristek esan dutenez, baina nahiko saltzen da beti. Gainera, saltoki ona da leku askotako lanak ikusteko aukera izaten delako.

**Zer nolako lanak ikusi dituzu?**

1989a ezkero joan izan naiz Madrileko erakusketa erraldoira; aurten, zerbait azpimarratzekotan, lasaitzen goazela da. Aurten pintura gehiago eta argazki gutxiagoa dago. Egia da ARCO ez dela artearen egoera errealaren irudi, baina sentsazio onarekin itzuli naiz. Pintura onak ikusi ditut, abangoardiako pieza onak, eta bideo instalazio gutxiago; beraz, lasaiago –ez klasiko–, baina sendoago ikusi dut.

**Mexiko izan da herrialde gonbidatua. Ikusi dituzu artelan mexikarrak? Zer iruditu zaizkizu?**

Urtero egoten da herrialde gonbidatu bat, baina gaur egun ez da nabaritzen alderik herrialdeen arteko lanetan. Arte modernoan, arte garaikidean, nolabaiteko berdintasuna dago eta ez duzu jakiten ikusten ari zaren hori New Yorkekoa, Mexikokoa edo nongoa den. Egia da Mexikoko lanek tradizio gogorra dutela eta hori nabari dela, baina gogortasun hori beste herrialde batzuetako lanetan ere sumatzen da. Gehiago da ARCOren marketing operazio bat.

**Euskal artisten lanak ikusteko aukera izan duzu?**

Manu Muniategiren lana ikusi nuen eta oso polita iruditu zitzaidan; pieza handi batek, egurrezko eskultura baten ondoan, osatzen zuen erakustokia eta oso polita zen. Amondarain, Urzaiz… guztien lanak ikusi ditut.

**Ze proiektu duzu esku artean?**

Badira bi urte ez dudala Madrilen erakusketarik egin eta aurten, seguru asko, erakusketa bat egingo dut Antonio Machonekin. Italian ere egingo dut beste bat; baditut beste asmo batzuk, baina ez dago ezer lotuta oraindik; balitekeAEBn nire lana erakustea aurrekoa jarraituz. Arkitekturaren inguruko lanak izango dira.

> "ARCOk bildumak bultzatzeko balio du eta artistendako elkartzeko aitzakia da"

> "Madrilen eta Italian erakusketa bana egingo dut aurten; eta, agian, AEBn ere erakutsiko dut"

# Marrazketa, idazketa eta sormena lantzeko hainbat sariketa deitu dituzte

*Kartelak, logotipo eta izen bat, nobela baten bukaera eta txorimaloak: horra hor deialdiek sarituko dituzten emaitzak*

Leire Kortabarria

Hainbat lehiaketatan parte hartzeko aukera dago egunotan; gainera, alor desberdinetako sariketak dira; irudimena eta sormena lantzeko aitzakia aproposak, hortaz.

Esate baterako, eguaztenera bitartean zabalik dago Arrasateko Emakume Sailak deitutako kartel lehiaketako epea. Nazioarteko Emakumearen Eguneko kartela diseinatu behar da, eta aurtengo leloa da *Martxoak 8: Arrasaten eta Munduan*. Lanak Arrasateko udaletxean entregatu behar dira.

Arte grafiko eta diseinu alorreko lehiaketa gehiago ere badago. Eskoriatzako Ibarraundi Museoak logotipoa behar du; baita izena ere, eta 300 euroko saria emango dio irabazleari. Izenak museoaren adierazgarria izan behar du, eta logotipoa Axtrokiko ontzietan oinarritu behar da. Proposamenak Ibarraundi jauregian utzi behar dira.

**IDAZKETA ETA ESKULANAK**

Idaztea gurago dutenek aukera dute Kilometroak 2005ek deitu duen idazketa lehiaketan parte hartzeko. Fernando Morillo idazleak nobela bat hasi du, eta horrendako bukaera idatzi behar da. Nobelaren hasiera, eta lehiaketaren oinarri guztiak, *www.kilometroak.com* webgunean daude. Lanak Arizmendik Aretxabaletan duen egoitzan entregatu behar dira.

Azkenik, eskulanen alorreko deialdi bat ere badago: Bergarako Jardun elkarteak deitu duen txorimalo lehiaketa. Horretan parte hartzeko izena eman behar da Jardunen martxoaren 11 baino lehen, eta egun horretarako entregatu behar da txorimaloarekin batera ipini behar den esaldia.

## Labur

### 'El Decamerón' antzezlana eta Korrikaren emanaldi bat, Elgetan

*El Decamerón* Giovanni Boccacciok idatzitako klasikoan oinarritutako antzezlana izango da egubakoitzean, hilak 18. Ados taldeak antzeztuko du Elgetan, Espaloia antzokian, 22:30ean. Izurrite Beltzari ihes egiteko gotorleku batean babestein diren hainbat lagunek umorez betetako istorioak kontatzen dituzte.

Bestetik, zapatuan, hilak 19, Korrika Kulturalaren barneko kontzertua izango da Espaloian: Afrika, Fjord eta Sharon Stoner. Sarrerak salgai daude.

### Descartesen gaineko liburua idatzi du, euskaraz, Xabier Arregik



*Descartes* (Jakin irakurgaiak) liburua aurkeztu du Xabier Arregik (Oñati, 1955). Filosofian doktore horrek Rene Descartesen pentsamenduaren ikuspegi orokorra eskaintzen du, eta ideia horiek gaur egun duten indar eta ahultasuna azaltzen du, euskaraz.

### Even in Blackouts eta The Toy Dolls taldeek kontzertu bana egingo dute

Kontzertu bana entzuteko aukera izango da eguenean eta egubakoitzean Bergaran. Eguenean, hilak 17, Even in Blackouts taldeak joko du Go Jam aretoan, 21:00etan. John Jughead Pierson gitarra-jotzailearen taldea da.

The Toy Dolls taldea agertokietan da berriz, bost urteko atsedenaldia bukatuta. Egubakoitzean, hilak 18, joko dute Jam aretoan, 22:00etan. Gatillazo Evaristoren talde berriak ere joko du. Sarrera 20 euro da, 18 aldez aurretik.

## Hitzorduak




**AMODIOZKO GUTUNEN BERRIGARA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA, GAUR |** Gutunen irakurketa, musika barroko emanaldia eta ezuste bat izango dira

Gaur, astelehena, San Valentin eguna ospatzen dute hainbat maiteminduk. Eta, urtero bezala, egun hori aukeratu du Bergarako Jardun elkarteak Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketako sariak banatzeko. Ekitaldia Bergarako kultura etxean izango da, 19:00etan (argazkian, iazko saridunak, ekitaldiaren une baten). Irabazleek euren gutunak jendaurrean irakurriko dituzte.

Horrez gain, soka hirukote batek musika barroko emanaldiarekin girotuko du ekitaldia, eta sari banaketa sorpresa batekin bukatuko da. Gero, luntx goxoa egongo da joaten diren guztiendako.

**ZINEMA |**

**• *El aviador* filma ikusteko aukera Bergaran**
Novedades aretoan izango da emanaldia gaur, astelehena, 19:30ean. Ikuslearen eguna da, hortaz, sarrera 3 euro da.

**• *Luna de Avellaneda* filma emango dute Arrasaten**
Amaia antzokian izango da emanaldia gaur, astelehena, 19:30ean. Ikuslearen eguna da eta sarrera 3 euro da.

**• *Alejandro Magno* filma emango dute gaur Oñatin**
Kultura etxeko zinema aretoan izango da emanaldia, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

**• *Mi vida sin mí* filma emango dute eguaztenean Elgetan**
Espaloia kafe antzokian emango dute film hori etzi, eguaztena, 21:30ean.

**• *La vida es un milagro* filma Bergaran, zineklubean**
Novedades aretoan izango da emanaldia eguenean, hilak 17, 20:00etan.

**• *Silver city* filma emango dute Oñatin, zineklubean**
Eguenean, otsailak 17, izango da, 20:00etan, kultura etxeko zinema aretoan.

**• *Diarios de motocicleta* filma emango dute Arrasaten**
Eguenean, hilak 17, emango dute film hori zineklub saioan, Amaia Udal Antzokian, 20:30ean. 4 euro da.

**• *Casablanca* filmaren emanaldia Bergaran**
Eguenean, hilak 17, emango dute film hori Go Jam aretoan, 21:00etan. Sarrera doan da.

**• *El bosque* filma ikusteko aukera izango da Aramaion**
Egubakoitzean, hilak 18, izango da emanaldia kultura etxean, 22:30ean. Euro bat da.

**• *Océanos de fuego* filmaren emanaldia Antzuolan**
Egubakoitzean, hilak 18, emango dute film hori Olaran etxean, 22:00etan.

**ANTZERKIA |**

**• Torpedolevel taldearen emanaldia Arrasaten**
Hilaren 18an, egubakoitza, antzezlana egingo dute Otalora kaleko Jai Zale tabernan, 23:00etan.

**• *Marixe* txotxongilo saiorako sarrerak salgai daude Oñatin**
Hilaren 19an, zapatua, egingo du Kresala taldeak txotxongilo, dantza eta musika ikuskizun hori, Errekalde Herri Eskolak antolatuta. Adin guztietarako egoki da. Sarrerak salgai daude 6 eurotan kultura etxean, Guria tabernan eta Irizar estankoan.

**DEIAK |**

**• Koadrilen Aratusteetako argazkiak, Nahikari tabernan**
Bergarako taberna horretan Aratuste zapatuan ateratako argazkiak eskatzeko aukera dago, tabernara bertara joanda edo *www.nahikari.com* webgunean.

**ERAKUSKETAK |**

**• Idoia Azkarateren margo erakusketa, hil osoan**
Margolari bergarar horren 21 lan ikusteko aukera egongo da Bergarako Nahikari tabernan otsail osoan. Bere lehen erakusketa da.

**• Josu Okinaren erakusketa dago zabalik Oñatin**
Josu Okina bergararrak margolan erakusketa du kultura etxean otsailaren 20ra bitartean, egunero 18:30-20:30 ordutegian. Paisaiak eta natura hilak dira gehienak.

**TURISMOA |**

**• Lau bisita gidatu, Oñatiko Turismo Bulegoaren eskutik**
Lau bisita gidatu antolatu ditu Oñatiko Turismo Bulegoak, guztiak Oñatiren alde monumental eta historikoaren ingurukoak. Erreserbak egiteko, deitu 943 78 34 53 telefonora.

**IKUSKIZUNAK |**

**• III. Kante Flamenko txapelketako finala, zapatuan**
Arrasateko Amaia Udal Antzokian izango da ikuskizuna zapatuan, hilak 19, 19:00etan. Al Andalus kultura elkarteak antolatu du.

## Eguraldia



Astelehena, 14 | Martitzena, 15 | Eguaztena, 16 | Eguena, 17 | Egubakoitza, 18

### Aste pattala izango dugu baina tenperaturak ez dira jaitsiko

Zerua hodeitsu egongo da gaur, astelehena, eta tarteka oso hodeitsu. Zaparrada arinak ere eroriko dira. Elur-kota, berriz, 700-800 metro inguruan kokatuko da. Bihar ere zerua hodeitsu egongo da. Goizean zehar zaparrada arinak eroriko dira, baina arratsalderako atertuz joango da.

Eguaztenean ere antzeko eguraldia egingo du: hodeitsu esnatuko da goiza, eta aurrera egin ahala arinduko duen arren, arratsaldean berriz ilunduko du. Eguena eta egubakoitza ere antzera samar ibiliko dira eta tarteka euria ere egin dezake. Tenperaturak, baina, ez dira asko jaitsiko.

## Goardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 14** | Irizar | Erguin, 11 (943 79 22 26) |
| **Martitzena, 15** | Amezua | Santamarina, 32 (943 79 09 74) |
| **Eguaztena, 16** | Corcuera | Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65) |
| **Eguena, 17** | Ruiz Perez | Maala, 31 (943 79 14 09) |
| **Egubakoitza, 18** | Zabala | Zarugalde, 42-44 (943 79 16 80) |

**BERGARA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 14** | Camacho | Oxirondo, 4 (943 76 16 87) |
| **Martitzena, 15** | Zabala | Barrenkalea, 25 (943 76 16 87) |
| **Eguaztena, 16** | Guallar | San Antonio, 5 (943 76 11 05) |
| **Eguena, 17** | Estella | Matxiategi, 5 (943 76 19 63) |
| **Egubakoitza, 18** | Mozos | Iparragirre, 2 (943 76 12 15) |

**OÑATI**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 14** | Anduaga | San Lorentzo, 3 (943 78 21 16) |
| **Martitzena, 15** | Anduaga | San Lorentzo, 3 (943 78 21 16) |
| **Eguaztena, 16** | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22) |
| **Eguena, 17** | Garate | Kale Barria, 42 (943 78 05 58) |
| **Egubakoitza, 18** | Garate | Kale Barria, 42 (943 78 05 58) |

**ARETXABALETA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 14** | Iturralde | Mitarte kalea, 18 (943 79 27 22) |
| **Martitzena, 15** | Iturralde | Mitarte kalea, 18 (943 79 27 22) |
| **Eguaztena, 16** | Iturralde | Mitarte kalea, 18 (943 79 27 22) |
| **Eguena, 17** | Iturralde | Mitarte kalea, 18 (943 79 27 22) |
| **Egubakoitza, 18** | Iturralde | Mitarte kalea, 18 (943 79 27 22) |

## Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Goibeko / Elgeta | 943 78 90 85 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## Zozketak

**BONOLOTOA**

Astelehena, 7
**4 • 13 • 23 • 31 • 43 • 46**
Osagarria: 36 | Itzulketa: 5

Martitzena, 8
**8 • 10 • 11 • 20 • 37 • 44**
Osagarria: 36 | Itzulketa: 9

Eguaztena, 9
**2 • 17 • 18 • 20 • 42 • 45**
Osagarria: 35 | Itzulketa: 3

Egubakoitza, 11
**9 • 14 • 29 • 31 • 38 • 49**
Osagarria: 2 | Itzulketa: 7

**ONCE**

| | |
|---|---|
| Astelehena, 7 | **20.981** |
| Martitzena, 8 | **62.830** |
| Eguaztena, 9 | **15.795** |
| Eguena, 10 | **37.973** |
| Egubakoitza, 11 | **89.767** |
| Kupoitzarra (077 seriea) | |
| Domeka 13 | **68.584** |
| Kupoitzarra (018 seriea) | |

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 10
**18 • 22 • 28 • 31 • 48 • 49**
Osagarria: 43 | Itzulketa: 6

Zapatua, 12
**3 • 7 • 14 • 17 • 40 • 43**
Osagarria: 30 | Itzulketa: 4

Domeka, 13 (Saritzarra)
**22 • 35 • 37 • 43 • 52**
Osagarria: 9

## Gazte zerbitzuak

**EKINTZAK |**
• **Antzerki jardunaldiak**. *Narruzko Zezen*. Eibarko Antzerki Jardunaldiak 2005. Otsailaren 4tik martxoaren 14ra. Programazioa: *www.eibarres.net* webgunean.
• **Kontzertua**. Captain Nemo, Brigada Criminal eta Lobo Electrico. Otsailaren 26an, zapatua, Altzako Kultura Etxean, 21:00etan.

**IKASTAROAK |**
• **Psikologia eta giza laguntza.** Gipuzkoako Gurutze Gorria. Irabazi asmorik gabeko elkarte edota erakundeetan parte hartzen duten eta hauek kudeatzen dituzten bazkideak eta boluntarioak. Epea: otsailaren 21a.
• **Boluntariotza.** Hezkide Eskola. Boluntariotzako oinarrizko ikastaroa (20 ordu). Martxoaren 6an, 13an, 20an eta 27an Donostian. Epea: plazak bete arte.

**LANA |**
• **Teknikaria.** Arrasateko Udala. Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostu bat bitarteko erregimenean eta aldi baterako betetzeko oposizioa. Epea: otsailaren 16a.
• **Teknikaria.** Elgoibarko Udala. Barne antolaketaren kudeaketarako teknikari lanpostu bat. Lizentziadunak eta euskarako 4. hizkuntza eskakizuna dutenak. Epea: otsailaren 17a.

**LEHIAKETAK |**
• **Euskal film laburrak.** Caja Vital Kutxa Fundazioa. Euskal Herriko film laburrenari saria antolatzen du. Epea: otsailaren 17a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net
**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com




**Antzuola:**
•Altzarte okindegia
•Martin okindegia
**Elgeta:**
•Kioskoa
**Bergara:**
•Bolintxo okindegia
•Ogizun okindegia
•Konde okindegia
•Olabe okindegia
•Mizpildi okindegia
•Plazako Kioskoa
•Txurrerua Kioskoa
**Arrasate:**
•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
•Balantzategi kioskoa
•Portaloiko kioskoa
•Usue paper denda
•Bolintxo Okindegia
•Maalako okindegia
•Kurruxko okindegia
**Aretxabaleta:**
•Errasti kioskoa
•Ibarra estankoa
**Eskoriatza:**
•Dorleta liburudenda
**Leintz Gatzaga:**
•Labidea
**Aramaixo:**
•Plazako kioskoa
**Oñati:**
•Haritza Kioskoa
•Ibarrondo Kioskoa
•Eskolatxo okindegia
•Arantxa okindegia
•Irizar okindegia
•Ogibarri okindegia
•Olakua okindegia
•San Lorentzo okindegia
•Errota okindegia

## Zorion agurrak



ARRASATE
**Arantza Carnero**
Otsailaren 4an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
**Uxue Errasti**
Otsailaren 5ean, 4 urte. Zorionak! Ama, aita eta Anderren partetik.



ARRASATE
**Maialen Iartza**
Otsailaren 9an, 12 urte. Zorionak, eta muxu handi bat! Etxekoak.



ARRASATE
**Nahia Zeziaga**
Otsailaren 12an, 11 urte. Zorionak! Etxekoak eta koadrilako lagunak.



ARRASATE
**Josu Alegria**
Otsailaren 13an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



ARRASATE
**Gaizka Murua**
Otsailaren 13an, 25 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Zure neskak.



ARRASATE
**Ion Barriocanal**
Otsailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ARRASATE
**Ainhoa Uribe**
Otsailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak! Nobixua eta lagunak.



ARRASATE
**Maite Arregi**
Otsailaren 16an, 15 urte. Zorionak! Gurasoak eta familiakoak.



OÑATI
**Maider Murillo**
Otsailaren 16an, 7 urte egiten dituzu. Zorionak eta muxu handi bat!



ARRASATE
**Julen Errasti**
Otsailaren 22 an 4 urte. Zorionak! Ama, aita eta Jokinen partetik.



ARRASATE
**Judit Uribarren**
Otsailaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Nerea eta Aitor.



BERGARA
**Jon Etxaniz**
Otsailaren 11n, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
**Jone Murgiondo**
Otsailaren 6an, 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta bereziki Uxue.



BERGARA
**Danel Murgiondo**
Otsailaren 6an, 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta bereziki Uxue.



BERGARA
**Haritz Oiarzabal**
Otsailaren 13an, 7 urte. Zorionak. Nora, Aroa eta Ekhiren partez.



BERGARA
**Nora Casquero**
Otsailaren 15ean, 8 urte. Zorionak. Haritz, Aroa eta Ekhiren partez.



BERGARA
**Saioa Galarraga**
Otsailaren 13an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



ARETXABALETA
**Oxel Vazquez**
Otsailaren 10ean, 8 urte. Zorionak, gurasoen eta Odei anaiaren partetik.



ARETXABALETA
**Agustin Calleja**
Otsailaren 2an, 55 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ARETXABALETA
**Ainhoa Calleja**
Otsailaren 18an, 23 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ESKORIATZA
**Julen Arriolabengoa**
Otsailaren 16an, 4 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxekoak.



ESKORIATZA
**Mikel Beloki**
Otsailaren 5ean, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ELGETA
**Oskar Askasibar**
Otsailaren 12an, 30 urte. Zorionak eta urte askotarako! Lagunak.

**Zorionak!**
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## Jaiotakoak



**Liher Etxabe Gil**
Arrasate • 3,260 Kg. Otsailak 6. Gurasoak: Mariano (Arrasate) eta Garbiñe (Errenteri). Argazkian: Liher lo kuman.



**Irati Oscoz Barrena**
Aretxabaleta • 3,600 Kg. Otsailak 7. Gurasoak: Mikel (Aretxabaleta) eta Abene (Arrasate). Argazkian: Irati lo kuman.



**Mikel Mulas Manovel**
Bergara • 3,500 Kg. Otsailak 7. Gurasoak: Miguel eta Milagros (Bergara). Argazkian: Mikel aitonarekin.



**Danel Etxaniz Idigoras**
Eskoriatza • 3,290 Kg. Otsailak 8. Gurasoak: Pedro (Elgoibar) eta Arantzazu (Eskoriatza). Argazkian: gurasokein.



**Maider Molinero Larrea**
Oñati • 3,360 Kg. Otsailak 8. Gurasoak: Joseba eta Ana (Oñati). Argazkian: Maider amaren besoetan bapo lo.



**Julen Pescador Arana**
Bergara • 3,415 Kg. Otsailak 8. Gurasoak: Felix eta Alaitz (Bergara). Argazkian: Julen amaren besoetan, bapo lo.



**Oier Manjon Saizar**
Arrasate • 3,990 Kg. Otsailak 8. Gurasoak: Bittor eta Konsuelo (Arrasate). Argazkian: Oier amaren besoetan bapo lo.



**Laura Martin Benito**
Eskoriatza • 3,750 Kg. Otsailak 10. Gurasoak: Javi eta Pepi (Eskoriatza). Argazkian: Laura, Irene haizparen besoetan.



**Ander Godoy Iglesias**
Bergara • 3,640 Kg. Otsailak 10. Gurasoak: Francisco eta Arantxa (Bergara). Argazkian: Ander gurasoekin.



**Endika Gonzalez Marcos**
Arrasate • 3,750 Kg. Otsailak 11. Gurasoak: Angel (Madril) eta Tere (Arrasate). Argazkian: anaia Anderrekin.

## Hildakoak

**Ignacio Carmona Carriedo**
Arrasaten, otsailaren 10ean. 74 urte.

**Jose Ugarte Retenaga**
Oñatin, otsailaren 10ean. 91 urte.

**Maria Rosario Eguren Urkiola**
Bergaran, otsailaren 10ean. 75 urte.

**Antonio Altzelai Ezpeleta**
Oñatin, otsailaren 11n. 85 urte.

**Eusebio Garitaonandia Lizarralde**
Arrasaten, otsailaren 11n. 66 urte.

**Juli Astiazaran Leturia**
Oñatin, otsailaren 11n. 85 urte.

**ESKELAK**
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN
82 euro
**943 76 92 71**

## sms mezuak

- Mait out, Jabierin. Ia kasu egiten didazun datorren zapatuan kalimotxitoa eskatzera zatozenean. NKN.
- Neska talde batek mutil jator eta dibertigarriak ezagutu nahiko lituzke. Bidali SMSa hona eta erantzun gure mezueskaria. Skrriksk.
- Realak lortuko du lehenengo mailan geratzea. Aupa Reala eta Aupa Osasuna. Txuri.
- Autopistako arduradunei: obrak egiteari uzten diozuenean bidesaria kenduko duzue, ezta! Bestela, obrak egiten zabiltzatenetan beherapena egin erabiltzaileoi! Ni.
- Berriz ere tuneletan obrak, autopistan. Eta bidesari osoa ordaindu behar oraingoan ere. Berriz Ni.
- Zorionak, Pakita. Urte askotarako zure lagunen partez!
- Jon, msdz. Idatzi. Behar zaitut. Rosario.
- Besarkada handi bat beneditarrei. Zuek ere sartu zaituztete sakuan. Ez dago eskubiderik.




**Baita SMS bidez ere!**
Bidali mezua:
**gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.**
Hurrengo **Asteleheneko Goienkaria**-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...
SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

## Gaur irratian

### Arrasate Irratia
FM 107.7

**'Igo Autobusera' | 09:00**

**Maiteminen kontuak San Valentin eguna dela-eta**

Besteak beste, Bergarako amodiozko gutunen lehiaketa izango dute berbagai; horretarako, Jardun elkarteko kide Migel Angel Elkoroberezibar gonbidatu dute; baita lehiaketako irabazleetariko zenbait ere; tartean, Nahikari Gabilondo. Asteburuaren gainbegiratua ere egingo dute.

### Oñati Irratia
FM 107.4

**'Neguko programazioa' | 12:15**

**Juan Martin Elexpuru idazleari elkarrizketa**

Idazle bergarararrak argitaratu berri duen liburua izango da eguerdiko protagonista: *Bergara aldeko hiztegia. Leintz, Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta*. Izenak dioen moduan, beraz, hor inguruko euskalkia aztertuko dute, besteak beste.

### Loiola Irratia
FM 99.8

**'Kalez kale' | 12:00-13:00**

**Amodiozko gutunen lehiaketaren gainean**

### Euskadi Irratia
FM 104.4

**'Faktoria' | 09:00-12:00**

**Jainkoarenganako maitasuna aztertuko dute**

### Radio Euskadi
FM 98.2

**'Crónica de Euskadi' | 09:30**

**Pernando Barrena elkarrizketatuko dute**

## Gaur telebistan

### GOITB



**'Fernando Amezketarra'-ren abenturak**
**13:50**
Txikienek Fernando Amezketarra zein izan zen jakin dezaten marrazki bizidun aproposak.

**13:45** Emisio hasiera.
**13:50** Marrazki bizidunak: *Fernando Amezketarra*. Pertsonai horren gorabeherak kontatuko dituzte.
**14:10** Marrazki bizidunak. *Lazkao Txiki.*
**14:15** *Berriak*. Gorka Etxabek gidatutako albistegia.
**14:45** *Behazulo.* Tsunamiaren ondorioak aztertuko dituzte Caritasko nazioarteko lankidetza arduradunaren eskutik. Goiatz Aranak gidatuta.
**15:15** *Oinak izarretan.* Profesionalek mendian egindako ibilbide ikusgarriak ikusgai.
**15:45** *Berriak.* Errepikapena.
**16:15** *Klip@.* Musika taldeen bideoklipak.

**19:30** Emisio hasiera.
**19:35** *Gaurkoak.*
**19:45** *Klip@.*
**20:00** *Berriak.* Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.
**20:30** Marrazki bizidunak.
**21:00** *Ilunpean.* Aitor Elkoro izango da gonbidatua.
**22:00** *Berriak.* Asteburuak eta egunak eman dituen albisteak.
**23:00** *Gure lanbide zaharrak.*
**23:30** *Gaurkoak.* Albiste laburpena.

### ETB 1



**Sketch arrakastatsuak, 'Ero eta Bero'-n**
**23:25**
Atzerriko eta hemengo Sketch arrakastatsuak batzen dituzte, familia osoa barrez lehertzen jartzen dituztenak.

**06:55** Tik-Tak circus.
**07:25** Betizu. *Doug, Hartz txiki, Doremiren magia, Sorgin aspertua.*
**08:50** E-klipse@.
**09:15** Travel notes.
**09:40** Elkartasunaren bideak.
**10:10** Amama sukaldari.
**10:20** Bidaide.
**11:15** Paradisu biziak.
**12:00** Bertatik Bertara.
**12:30** Hitzetik hortzera.
**13:05** Barne barnetik.
**13:35** Betizu.
**14:00** Gaur Egun 1.
**14:40** Postdata.
**14:45** Eguraldia.
**14:50** Hasiberriak.
**15:15** Bidaide.
**16:10** Paradisu biziak.
**17:00** Sustraia.
**17:35** Eklipse@.
**18:00** Iparraldearen onena.
**18:05** Betizu. *Beekerekeak, Garfield eta lagunak, Doraemon, Zuzen eta Shin Chan.*
**20:20** Eguraldia.
**20:28** Gaur Egun.
**21:05** Bertatik Bertara.
**21:40** Goenkale.
**22:20** Ze kosmopolita.
**23:25** Ero eta bero.
**00:20** Eguna iruditan.
**00:25** Postdata.
**00:30** Teknopolis.

### ETB 2



**'El conquistador del fin del mundo'**
**21:55**
Bistan da proba batzuk ez direla txantxetakoak. Proba artean, baina, parte-hartzaileak aspertu egiten ei dira.

**07:15** Del país de los vascos.
**07:40** Rutas de solidaridad. *Honduras: el paraíso de las multinacionales.*
**08:05** Los hombres de Harrelson. *Recuerdos peligrosos.*
**09:00** Forum. David Barberorekin.
**09:30** El punto. Juan Luis Bikuñarekin.
**10:20** Cosas de casa. *Abuso de autoridad.*
**11:10** Teleserie.
**12:15** Se ha escrito un crimen.
**13:55** Date el bote. Carlos Soberarekin.
**14:58** Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
**15:55** Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
**16:00** Pasalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin.
**18:20** Siempre cine. Zehaztu bariko filma.
**20:10** Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
**20:58** Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
**21:50** Eguraldia.
**21:55** El conquistador del fin del mundo.
**00:00** El día en imagenes.
**01:35** Documental.
**02:45** Esta es mi gente.
**03:35** Date el bote.
**04:25** Pasalo.
**06:15** Forum.

### TVE 1



**'Smallville' telesaila arratsaldean**
**18:00**
Lanaren aitona orain dela 40 urte auziperatu zuten orduko emaztea hiltzeagatik. Itxuraz, erruduna izan barik.

**06:00** Canal 24 horas.
**07:00** Telediario matinal.
**09:00** Los desayunos de TVE.
**10:15** Saber vivir.
**11:15** Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina.
**14:00** Informativo territorial.
**14:30** Corazón de invierno. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
**15:00** Telediario 1.
**15:55** El tiempo.
**16:00** Espacios electorales.
**16:05** Obsesion.
**17:00** Te voy a enseñar a querer.
**18:00** Smalville.
**19:15** Esto es vida.
**20:00** Gente.
**21:00** Telediario 2.
**21:55** El tiempo.
**22:00** Espacion electorales. PSOE-PP-PNV-CIU.
**22:00** Splunge. Florentino Fernandezek gidatutako umorezko saioa. Pertsonai ezagunak elkarrizketatuko dituzte.
**23:00** Cruz y raya.com. Errepikapena.
**23:40** 59 segundos.
**01:30** Telediario 3.
**02:00** Deporte.es.
**02:30** Los siete magnificos.

### La 2



**'Cuando llegaron los ingleses' erreportajea**
**22:35**
Cronicas saioan europar jubilatuen gaineko erreportajea egin dute. Itxuraz, Espainia aukeratzen dute bizi izateko.

**07:30** Los Lunnis. *Tom, Aventuras en pañales* eta *Tweenies.*
**09:30** Aquí hay trabajo.
**10:00** La aventura del saber.
**11:00** La botica de la abuela.
**11:15** España.es.
**12:55** Espacios electorales.
**13:00** Los Lunnis. *Digimon, Artur, Los Lunnis* eta *Los minimonstruos*.
**15:15** Saber y ganar.
**15:45** Grandes documentales. *Natural World.*
**16:55** Frontera Limite.
**17:30** Los Lunnis. *Pato Bill, Los Lunnis* eta *Misión Odisea.*
**19:10** Pueblo de Dios.
**19:40** Desconexion territorial.
**20:00** Informativo territorial.
**20:30** Apartamento de soltero.
**21:00** Vivir con Mr. Cooper.
**22:30** El tiempo.
**21:30** Miradas. 2.
**21:55** Sorteo de la Bonoloto.
**22:35** Cronicas. *Cuando llegaron los ingleses.*
**23:30** Estravagario.
**00:30** Metropolis.
**01:00** Los conciertos de radio 3.
**01:35** Ciencia cierta.

### Antena 3



**Kultura orokorra, 'Pasapalabra'-n**
**20:15**
Gonbidatuak aldatuko dituzte oraingo astean. Alexis Valdes eta Manuel Galiana aktoreak izango dira.

**06:00** Las noticias de la mañana.
**09:00** Ruedo ibérico. Montserrat Dominguezek aurkeztutako goizetako saioa.
**10:45** Cada día. Maria Teresa Campos esatari ezagunak aurkeztutako saioa. Elkarrizketak, tertuliak eta lehiaketak egiten dituzte.
**14:30** Los Simpson. *La tapadera.*
**15:00** Noticias 1.
**15:45** Aventura en Africa. Lehiaketa horren eguneko laburpena.
**17:00** La vida es rosa.
**18:00** Números locos.
**19:00** El diario de Patricia. Herritarren testimonio bitxiez osatutako programa. Patricia Gaztañagarekin.
**20:15** Pasapalabra. Kultura orokorraren gaineko lehiaketa dibertigarria. Silvia Jatok aurkeztuta.
**21:00** Noticias 2.
**21:45** El peliculón. *Amor Ciego*. Hal-ek bikotekidea aurkitzea baino ez du gura; hori bai, neska ederra izan beharko da. Protagonistak honako hauek dira: Gwyneth Paltrow, Jack Black, Jason Alexander...
**00:15** 7 días, 7 noches.
**02:00** Noticias 3.
**02:20** Televenta.
**05:00** Repeticiones.

### Tele 5



**New York eta Miami artean, 'CSI Miami'-n**
**22:00**
Laura etxera iritsi eta konturatzen da gurasoak hil dituztela. Gura ala ez, polizien babespean egon beharko da.

**06:30** Informativos Telecinco matinal.
**09:10** La mirada crítica. Vicente Vallesekin.
**10:45** El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute: Kalabaza pastela prestatuko du, porru kremarekin.
**14:30** Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrorekin.
**15:30** Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
**16:30** Gran hermano VIP.
**17:30** A tu lado. Emma Garciarekin.
**19:35** Alla tú. Jesus Vazquezekin.
**20:30** Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustin Hernandez.
**21:30** Pecado original.
**22:00** C.S.I. Miami. *Miami-Nueva York sin escalas*
**23:00** C.S.I. Las Vegas. *Para siempre.*
**00:00** Cronicas marcianas.
**02:20** Informativos Telecinco.
**02:45** Madrugada de cine. *New Rose Hotel.* Drama.

## Astean GOITBn

### Astelehena, 14



**'Harmailatik' | 21:00**

**Asteburuko kirol jardunaldiari begiratua**

Julen Iriondo kazetariak asteburuan kirol taldeek egin dutenaren gainean gainbegiratu zabala egingo du, eta, horrez gain, hainbat gonbidatu elkarrizketatuko ditu.

### Martitzena, 15



**'Ordubetez' | 21:00**

**Europako Konstituzioaren gaineko mahai-ingurua**

Hilaren 20an bozkatuko dute Europako Konstituzioa, eta GOITBk eztabaidarako tartea zabaldu du. Gorka Etxaberen gidaritzapean, hainbat adituk iritzia emango dute.

### Eguaztena, 16



**'Mandio' | 21:30**

**Arantzazuren gaineko erreportajea**

Goiatz Arana kazetariak Arantzazuko santutegiaren gaineko erreportaje zabala egin zuen. Besteak beste, santutegiaren historia eta hango fraideen bizitza aztertu zuen.

### Eguena, 17



**'Oinak izarretan' | 21:30**

**'Annapurna I: Mendiaren Itzela'**

Annapurna I mendira igo ziren Jon Beloki eta Alberto Iñurrategi 2002ko apirilean. Elur jausiengatik mendi arriskutsua izanda, ekialdeko ertzetik igotzea erabaki zuten.

### Egubakoitza, 18



**'Ilunpean' | 21:00**

**Julian Iantzi telebista aurkezleari elkarrizketa**

Aspaldian ETBn hain ezaguna egin den aurkezle nafarrari elkarrizketa egingo dio Oihana Elortzak. Besteak beste, *Basetxea* lehiaketan egin du lan Iantzik.

Otsailaren 14a: 031 zozketa

## Harpidedunen txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 14, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

**Eskaintza:**

**Harpidetza kuota, 35 euro**

**2005 osoko** harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, **aste bukaera osoa**

030 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko egubakoitzean argitaratu genituen sarien irabazleak.

**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**

**Otsailaren 18an Markeliñe taldearen Decameron antzerkirako lau gonbidapen. Saridun bakoitzari bina. Elgetako Espaloia antzokian.**

- Xabier Igartua Bengoa (Aretxabaleta)
- Ziorla taberna (Arrasate)

**Otsailaren 19an Elgetako Espaloia antzokian egingo den KORRIKA MUSIKALA kontzerturako bi gonbidapen.**

- Unai Ugarte Etxeberria (Bergara)
- Maika Aranzabal Sanchez (Aretxabaleta)
- Angel Arregi San Pedro (Antzuola)

**Eibar-Ejido futbol partidurako lau sarrera; saridun bakoitzari bina.**

- Santiago Aiastui Ugalde (Antzuola)
- Francisco Jesus Izquierdo (Arrasate)
- Ana Fernandez Parra (Arrasate)
- Pedro Mari Zubizarreta Arenaza (Aretxabaleta)

**MOKOGORRI, 6 urtetik gorakoendako bi puzzle (saridun bakoitzarendako bat).**

- Larraitz Iñurrategi Landa (Aretxabaleta)
- Juan Luis Barrutia Mendizabal (Bergara)

## Otsailaren 21eko sariak

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

- Otsailaren 25erako Elgetako Udalak antolatutako **BERTSO SAIORAKO** (Lizaso, Murua, Unai Agirre eta Estitxu Arozena) lau gonbidapen. Saridun bakoitzari bina. Elgetako Espaloia antzokian.

- Otsailaren 26an Elgetako Espaloia antzokian izango den **ARRASATE BING BAND** taldearen emanaldirako lau gonbidapen. Saridun bakoitzari bi




Juan Martin Elexpururen

**BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**

Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta.

Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.



ASTELEHENEKO
Goienkaria
Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 ARRASATE
Egoitza nagusia: BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa
Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • ISSN: 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*



Goizean: Euria
Arratsaldean: Euria

# Hamarrekoa

**JULIAN IANTZI** | ETB-KO AURKEZLEA

## "Bi eguneko gaupasa egin nuen behin, etxeko zapatilak jantzita nituela"

Oihana Elortza

**1. AEBetan jaio, Lesakan bizi, Irunera ezkondu eta munduan zehar lanean.** Duela 10 urte bizi naiz Irunen. Askotan hilabete asko egiten ditut lanean etxetik kanpora, baina oraindik ere, Lesakakoa naizela sentitzen dut.

**2. Lesakara etorri zen amerikarra?** Kalifornian bizi arren, Euskal Herria zuten bihotzean gurasoek, eta, 7 urte nituela, Lesakara etortzea erabaki zuten. Bi urterako etorri, eta aitak 23. hilabetean aurkitu zuen lana.

**3. Miss Gipuzkoa gala aurkeztea izan zen ETBko zure lehen lana.** Hain urduri nengoen, fijatu ere ez nintzen egin ondoan nituen neska ederrengan, pentsa!

**4. Orain lasai ikusten zaitugu ba.** Saio ezberdin askotan ibili naiz lanean eta denetan ikasi dut zerbait: kale inkestak egin ditut, dokumentalak, *reality*-ak ...

**5. Eta Santiago-bidea egin duzu inoiz?** Ez, baina badut egiteko asmoa. Lagun batek Aznarrekin hitz egiteko hitzordua lortu zuen Santiago-bidean. Oropesara joan zen, Aznarrek udako oporrak igarotzen dituen etxera, eta hantxe hitz egin zuen lehengo presidentearekin.

**6. Informatikari lanik egin duzu inoiz?** Ikastea ez zait inoiz askorik gustatu, eta Informatikan ez zela askorik ikasi behar esan zidaten, logika erabili behar zela gehiago. Horregatik ikasi nuen, baina zortzi ordu ordenagailu aurrean geldi egotea ez da niretako. Ostalaritzan eta Lesakako lantegian ere ibili naiz lanean. Orain, telebistan dihardut, eta bihar, auskalo.

**7. Proba gogorrak pasatzeko balio duzu?** Ez da txantxa; Europako probarik gogorrenak egiten ditugu ETBko programa hauetan, eta munduko gogorrenetarikoak.

**8. Erosoa da gaupasa etxeko zapatilekin egitea?** Egubakoitz batean erabaki nuen asteburu hartan ez nuela gaupasarik egingo, eta etxeko zapatilekin joan nintzen tabernara. Domekan iritsi nintzen etxera.



OIHANA ELORTZA

**Julenek, 5 urteko alabak, jai zuen ikastetxean Aratusteak direlako, eta familia osoarekin Debagoienera egun-pasa etorri zen Julian Iantzi. Irungo futbol taldean jokatzen zuenean sarri egokitzen zitzaion Arrasateko taldearen aurka jokatzea, eta ETBrako apustu bat grabatzen ere egona da. Arratsaldean, Antzuolan izan ziren; Begoña erromesa bisitatzeko asmoz joan ziren.**

**9. Oraindik baduzu ohitura txokolatea jateko jatordua amaitu baino lehen?** Emaztearen etxean hartu dut ohitura hori. Postrearen aurretik, bi ontza txokolate beltz jaten ditut beti. Argentinan plater bakarra hartzen dute, eta asko kostatu zait ohitzea.

**10. Ona zara etxeko bideoak grabatzen?** Alaba askotan grabatzen dut, bai.



### Biharamuna

Maria Agirre

## Trena bihotzera

Gaur, **Amman** sailburua eta **Gonzalez de Txabarri** diputatu nagusia Arrasatera etorriko dira, tranbiaren inguruan prestatu duten erakusketa inauguratzera. Debagoiendarroi, tranbia nondik pasako den eta zelakoa izango den erakustea izango da helburua. Politikoek oso ondo egiten dituzte kalkuluak, izan ere, gaur jendaurrean jarri eta bihar bertan bukatzen da proiektu horri alegazioak aurkezteko epea. Bizkor ez, oso bizkor ibili beharko du, beraz, erakusketan gustuko ez duen zerbait ikusten duenak, ordu batzuk izango baititu alegazioak aurkezteko.

Takarraran ibili behar izan dute Aretxabaletako erdialdeko herritar batzuek ere. Joan den astean, buzoian gutun bat jaso nuen haiek utzita. Tranbia herriaren erdialdetik, alde zaharretik, pasako dela eta, arduratuta daude. Diote, oinezkoendako toki bakarrenetarikoa izateaz gain, festen bilgune dela, eta gainera, erdialdeko etxeetan asko sumatuko dela tranbiaren dardara. Hori guztia, ahaztu barik, erdialdea kablez josiko dutela. Ez dakit, baina susmoa dut horiek guztiak ez dituela gaur hasiko den erakusketak argituko.

Dena dela, **San Valentin** eguna denez, erromantiko jarri eta trenak izan ohi duen alderdi maitagarria aipatu behar. Ibarreko helduek maitasunez gogoratzen dute garraiobide hura, eta orduko argazkiek bihotza xamurtzen digute. Bat baino gehiago maitemindu zen treneko joan etorrietan. Kostako zaie etorkizuneko trenei debagoiendarron bihotzera iristea.

MAHAI INGURUA
**Europar Ituna eztabaidagai**
**Aurkezlea:** Gorka Etxabe
Martitzenean, otsailaren 15ean, 21:00etan
Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*
GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:
ARKAUZ
ARRASATE-ARETXABALETA

